

**Paula
Garaialderen
erakusketa**



Kupelak zabalik



GIZALDI BUKAERA?
MILURTEKOAREN ?
EURO €?
HASIERA ?



SAGARDOA TXOTXETIK GOIERRIN



ETXE-ZVRI
SAGARDOTEGIA

☎ 943 88 20 49

OLABERRIA

BEGIRISTAIN

TOLARE-SAGARDOTEGIA

Haragia eta ogia jartzen ditugu
Egunero zabalik 19etatik 23etara
Igandeetan itxita
Eguerdietan enkarguz

☎ 943 65 28 37

IKAZTEGIETA

AMEBI

TXOTX
DENBORALDIA
IREKI DUGU



ASTELEHEN
GAUETAN
ITXITA

☎ 943 16 25 23

Sagardotegia Zubierreka, 9
LAZKAO

ZALBIDE
TOLARE
SAGARDOTEGIA



Astegunetan 19:00etatik aurrera
Asteburuetan eguerdi eta iluntzean

☎ 943 65 21 76

ABALTZISKETA

KORTA

☎ 943 88 71 86

GABIRIA

OTATZA

Aste guztian zabalik, asteazkena ezik
Larunbat eta igandeetan eguerdiz ere ire-
kita (asteazken zehar eguerditan enkarguz)

Txotx denboraldia 14tik zabalik

☎ 943 80 17 57

ZERAIN



aulia

TOLAREA
SAGARDOTEGIA

☎ 943 80 60 66

LEGORRETA

Olagi



Urte guztian zehar zabalik

☎ 943 88 77 26

ALTZAGA

LARRETA

SAGARDOTEGIA

AMEZKETA



HARITZ
943 654 293
689 985 432



JOXE MARI
943 652 946
608 975 198



OSTATUA
SAGARDOTEGIA

☎ 943 885 829

OLABERRIA



TXIMIETA

Sagardotegia

Egunero zabalik, eguerdi eta gauean

Gudarien Etorbidea

☎ 943 88 11 28

ORDIZIA

URBITARTE



☎ 943 18 01 19

ATAUN



BELEKU

JATETXEA
SAGARDOTEGIA

☎ 943 65 30 68

LARRAITZ

Non zer

6 ESKUTITZAK

7 TXANDAKA: Ekaitz
Goikoetxea

9 KATE MOTZEAN: Lontxo
Ormazabal

10-11: Mila Aierbe astrologoa

12-13: Bi txiletar gazta ikasle

15: Maria Oruna: Miss
Gipuzkoa

15: 'Tolare sagardotegiak'

16-24 KRONIKAK

ZERAIN 16: Urte berria

ZEGAMA 16: Kasinoko bertso
jaialdia

LAZKAO 17: Udalaren
erabakiak

GABIRIA 18: Asto karrera

EZKIO-ITSASO: 18: Anduaga
industrialdea

ATAUN 19: 1.555 biztanle

ZALDIBIA 20: Herriko
pelotariak punta-puntan

BEASAIN 21: Udal akordioa

SEGURA 22: Bi erretaula
monumentu kultural

IDIAZABAL 23: Udalbiltzarekin
bat

ORDIZIA 24: Azkeneko azoka
arrakastatsua

25 KULTURA: Paula Garaialde
pintorea

26-27: AGENDA

28 DEBALDEKO IRAGARKIAK

29 ZAHARRAK BERRI: Patxi
Telleria.

30 FOTO ZAHARRA: Ataundarrak



'Gipuzkoa zein berdea' proiektu turistikoa aurkeztuko da gaur Lazkaomendin

Gipuzkoa barrualdeko bost eskualdek elkarlanean, Tolosaldea, Goierri, Urola Garaia, Urola Erdia eta Deba Garaia, gaur, urtarrilak 14, goizeko 10,30etan, Lazkaomendiko San Juan Ante Portam Latinam ermitan, aurkeztuko dute 'Gipuzkoa zein berdea' proiektu turistikoa berria.

Bost eskualdeek eskaintza turistikoa integral bat eskaini nahi dute. Bost helburu nagusi dituzte: Gipuzkoa barnekaldeko herri guztietara iristea; Gipuzkoara bisitan datozenei egituratutako produktu bat eskaintzea; Gipuzkoa barnekaldeko biztanle, botere publiko eta pribatuaren artean kontzientzia turistikoa areagotzea; Gipuzkoarrentzat eta eskualde hauetan bizi diren biztanleentzat proiektu liburu ireki bat izatea; eta orain arte bakarka egindako lana marka berri honi lotu eta erreferentzia puntu garrantzitsu batean bilakatzea.

Elkarlanaren beharra

1999. urtean turismo azoketan izandako esperientziaren ondoren, guztien artean egin beharreko lanaz ohartu ziren, hainbeste herri txiki, hainbat berezitasun eta ezaugarri ezberdinekin, kanpoan zer erakutsi asko zegoelako. Irailetik hona egindako bileretan sortu zen Gipuzkoako barnekaldea lotuko duen 'Gipuzkoa zein berdea' marka. Marka honek sare bat bailitza jokatzeko du, eskualdeak bata bestearekin lotuz eta herri guztien elementuak lau multzotan banatuz: natura, kultura, gastronomia eta jaiak.

Kaleraturik dagoen lehenengo triptikoan, lau elementu horiek hartzen dira kontuan. Ekimen ondoren, ibilbidez osaturiko beste liburuxka bat kaleratuko da orain. Hurrengoan izango duzue informazio gehiago.

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA Argitaratzailea: Goierritarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean) 124 posta-kutxa Ordizia Tfnoa: 94388 96 12 Faxa: 94388 27 19

Zuzendaria: Loinaz Agirre **Maketazioa:** Mikel Albisu **Publizitatea:** Argider Mujika **Erredakzio Batzordea:** Mikel Albisu, Joseba Telleria, Ane Martin, Loinaz Agirre eta Estitxu Imaz. **Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak:** Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Elordi Garzia, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Agurtzane Bikuña, Gabino Murua, Saroi Jauregi, Iñaki Gurrutxaga, Joseba Etxezarreta, Mari Flor Mendizabal, Sasita Mankomunitatea, Maizpide Euskaltegia eta Ekaitz Goikoetxea.

Fotokonposizio eta maketazioa: GOIERRITARRA. **Inprimaketa:** Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 7.800 ale. **SSN:** 1132-0907 **Lege gordailua:** SS-926/89 **Frankeo kontzertatua:** 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



**Eusko Jaularitzako Kultura
Sailak, Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta GOIERRIKO
UDALEK diruz lagundutako
aldizkaria**

Birziklapenaren gidaliburua

Sasieta Mankomunitateak Birziklapenaren gidaliburua kale-ratu berria du. Zaborra bereiz-teak eta birzi-klatzak dituen onurak azaltzen dira bertan. Edukinontzi ez-berdinetan zein material bota behar den eta birziklatutako materialarekin zer egiten den zehazten da bertan. Sasietak berak ematen dituen zerbitzuak ere argi zehazten dira bertan. Zenbait aholku ere ematen da.

Aldizkari honetako 6. orrialdean, Aholkua sailean, edu-kinontzi berde, urdin eta horietan zein material bota behar den zehazten da.



Aterpe pintura lehiaketa: Enrique Velazquez

Usurbilgo Enrique Velazquezek irabazi du VIII. Aterpe pintura lehiaketa. Artista aukeratuen artean gelditu zirenak hauek dira: Lezoko Martin Zarate, Kubako Odalys Dume-nigo, Donostiako Jose Manuel Andreu, Lazkaoko Maider Urretabizkaia eta Beasaingo Iker Dorronsoro.


Presoen eskubideen alde

Frantziako Fleury Merogis kartzelan dagoen MARIA JESUS ARRIAGA ordiziarra gose greba mugagabea dago. Kepa Mujika ordiziarra ere gose greban zegoen baina bertan be-hera utzi behar izan du.

Euskal presoak egiten ari diren gose grebarekin bat egi-nez, hainbat goierritarrek ere astebeteko BARAUALDIA egin zuten abenduaren 27tik urtarrilaren 2ra, Arrasaten.

Presoen eskubideen alde bilkura eta MANIFESTAZIO IXI-LAK egin ziren Goierriko herri gehienetan abenduaren 31n.

Urtarrilaren 10etik 15era, EHko hainbat alkate Altsasun egiten ari diren gose greban HIRU GOIERRIKO ALKATE ditu-gu: Ezkio-Itsasoko Iñaki Idiakez, Segurako Lulli Telleria eta Zaldibiako Joakin Zubeldia.



Xabier Mendiguren eta Joxe Azurmendi albiste izan dira urtearen hasiera honetan.

Joxe Azurmendi: 'Euskal Herria krisian'

Joxe Azurmendi zegamarrak 'Euskal Herria krisian' saiake-ra liburua kaleratu du. Gure artean inposatu nahi diren balio absolutuak salatzea du helburu liburuak.

Xabier Mendiguren Elizegik Tene Mujika lehiaketa irabazi du

Beasaingo Xabier Mendiguren idazleak, Tene Mujika narra-zio laburren lehiaketa irabazi du, 'Zapero, gogoan zaitugu' ipuinarekin. Gizartearen erretratu zorrotz eta kritikoa ironiaz lagunduta, kontatzen du beasaindarrak bere ipuinean.

Monumentu kultural

Beasaingo Andra Mari Zeruratuaren elizako erretratu nagusia 'erretratu babestua' izendatu du Eusko Jaurlaritzak. Gi-puzkoan, Lazkaoko Beneditarrenarekin batera, barroko ma-drildar estiloko bakarra da Beasaingoa.

Argitarapen honen ediziozko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



*gizarte-ekintza
obra social*



Ekaitz Goikoetxea

Azaroaren 25ean banatu ziren Zumarra-
gan 'Iparragirre Saria 1999' literatur sa-
riak. Ekaitz Goikoetxea beasaindarra
izan zen gazteen mailan prosa eta poe-
sia alorretako irabazle, 'Bizitza dario ai-
tonaren heriotzari' eta 'Heriotzak ez du
heriotzik' lanekin.

Francisco Gomez, desagertuta

Abenduaren 17an desagertu zen Itsa-
sondoko Francisco Javier Gomez, 38
urteko itsasondoa. Inork bere berririk
badu, Beasaingo Ertzain-etxera dei de-
zala: 943887350.

Loinaz tindategia

Beasaingo Loinaz tindategiaren erakus-
leihoak hirugarren saria eskuratu du
Merkatal Ganbarak antolatutako era-
kusleho lehiaketan.

Mikel Mendizabal eta Xafre EEBBetan

Mendizabal bertsolariak Gabon egunak
EEBBetako Chinon pasatu ditu, euskal
jatorrikoen artean. Nafarroa Behereko
euskaldun ugari dago bertan. Xafre tri-
kitilaria ere tartean izan zen.

KIROLA



Iñaxio Imaz erremonteko txapelaldun

Abenduaren 18an jokaturako erremon-
teko txapelketa nagusiko finalean, Ez-
kurrarekin batera, Altuna II eta Etxabe-
ri 40 eta 37 irabaziz lortu zuten txape-
la. Iñaxiok Ezkurrarekin jokaturako
aurreko bi finaletan ezin izan bazuen
txapelik lortu, hirugarrenean bai.

Oinatz Munduate

Idiazabalgo txirrindulari gaztea Euska-
diko ziklo-kros txapelaldun izan da ka-
dete mailan. Honek Espainiako txapel-
ketara joateko aukera eman zion eta
bertan 4. postua lortu zuen.

Ataungo VII. areto-futboleko txapelketa

Urtarrilaren 22an hasiko da Ataungo
VII. areto-futboleko txapelketa, Ataun-
go Kirol Elkarteak antolaturik eta Uda-
laren laguntzarekin. Larunbat arratsal-
detan jokatu da Auzoeta kirolde-
gian. Talde bakoitzak 10.000 pezeta
ordaindu behar ditu izena ematerako-
an. Urtarrilaren 20a da izena emateko
azken eguna. (943180384.

Beasaingo San Silbestre

Beasaingo San Silbestre proba David
Kimei keniarrak irabazi zuen gizonez-
koetan. Isabel Eizmendi izan zen ira-
bazlea emakumezkoen atalean. Herri-
tarretan lehenengoak Manu Hurtado
eta Maitane Etxeberria izan ziren.

Antzizar Sofbol taldea

1985. urtean edo beranduago jaiota-
ko neskek kirol berria dute aukera
Beasainen: sofbola (emakumezkoen
beisbola). Beasainen bizi den Alci-
des Raimon kubatarrak gidatuko du
taldea. Bertan parte hartu nahi due-
nak, asteazkenetan, Beasaingo Ez-
kierdi pilotalekuan (Oria paseale-
kua), 19:30ean, izango ditu entrena-
mentuak. Informazio gehiagorako
telefonoa: 943-163052 (Alcides).



80 pertsonentzako tokia

Sagardotegia
ireki dugu



943 885 829
Herriko plaza OLABERRIA

GESTORIA Biok

ASEGUROAK

- * Aholkularitza laborala eta fiskala
- * Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta
kotxe aseguruak

943 88 44 00 - 943 88 12 58
Goierri, 12 ORDIZIA



Ordizia Kirol Elkarteak

Lehendakariak eta zuzendaritzakide, entrenatzaile, laguntzaile eta jokalariorik.
Elkarteko taldeen jarraitzaile, Ordiziako eta Goierriko gainerako kirol eta kultur Elkarte,
gure laguntzaile eta goierritar guzti-guztioi.

Zorionak eta urte berri on opa dizkizuegu

Bakea hitzetan eta gerra egiteetan

Ni Gabon gauerako zaharrentzako afaria antolatzeke erabiltzen den era horren aurka nago, zaharrak artalde bat artzainak gidatzen duen bezala gidatze horrek ez du tuste zaharren nortasunari onik egingo dionik, hor afaritara hotelera joan eta festa egiteko gai diren horiek, ingurugiroa eta dirua edukiz gero, pertsona bat gehiago bezala gizartean ibiltzeko gai dira eta, hortan lagundu behar dela uste dut.

Nik komunikabidetik hartutako berriak honela zion: Gabon gauerako afaria antolatu da, Hondarribiko hotel batean, bakarrik bizi diren hirurogeita bost urte baino gehiagoko bikote aitona-amonentzat: 95.000 pezeta baino gutxiagoko soldata daukatenek emaria izango dute.

Emaria diru publikotik baldin bada, diskriminazioa dago antolaketa honetan, hirurogeita bost urte baino gehiagoko zaharrei obligazio asko ezarri zizkiguten eta, aitona-amona ez garen zaharrok karga horietatik, ez ginen salbatu, eta orain emaria aitona-amonentzat dago eta ez besteentzat.

Soldaduska: Ni 1942ko kinta naiz eta, gu 41 hilabete pasatzera behartu gintuzten, 'España una grande y libre' babestera eta, geroztik pixkana-pixkana gutxiagotzen joan da soldaduskako denbora baina, gaurko soldaduskak 1942ko helburu berdina daukala uste dut.

Fabriketan lan egiten zuten langileen artean ezberdintasun handia zegoen, haurrak zituzten eta ez zituztenen artean, lan berdina eginda askoz ere diru gehiago jasotzen zuten haurrak zituztenek.

tuztenek.

Fabriketatik at, ekoizten genuen jende asko ginen orain dela 50 urte, eta haien artean asko gizartearentzat lehenbiziko beharretarako produzitzen genuenak, sektore horretakoak ez gara gutxiena izango 95.000 pezeta baino gutxiagoko zahartzaroko soldata daukagunok eta entitate publikoa bada afaria antolatzaile aitona-amonak ez diren zaharrak at uztea injustizia da.

Patxi Otaegi (Donibane-Lohizune)

Mumia Abul-Jamal heriotzaren galerian

Pennsylvaniako estatuko espetxeetan hiltzearen zain dauden 180renen artean aurkitzen da Mumia Abul-Jamal. Estatu Batuetan 3.000ren artean.

Mumiak zigortu afroamerikarren zerrenda handiagotzen du, estatu honetan hiltzera zigortuen %60a iristen dena. Kanean, aldiz, populazioaren %9a besterik ez dute osatzen. Mumia Abul-Jamalen kasua, EEBBetan "Justizia"ren funtzionamenduari beste adibide bat da, baita bere boterearen interese-kiko menpekotasunarena ere, boterea gizarte barruan edozein disidentziako aztar-na ezabatzen setatsua baita, kanpoan egin nahi duen bezalaxe, bere Orden Berriaren zaindariaren paperean.

Mumia Abu-Jamal kaze-tari eta idazlea da. 60. hamarkadatik jardun da afroamerikarren eskubideen defentsan eta gutxiengoaren kontrako gobernuen gehiegikeria salaketan. "Pantera Beltzak" alderdiko militantea izana, geroago ospetsu bihurtu zen Irrati Publikoan berak egindako saio bati esker, "Ahots-gabeko ahotsa" ezizena sortu ziona. Irratitik bota zuen bere iritzi erradikalak zirela medio. Egia esateagatik.

1982. urtean hiltzera zigortua izan zen polizi bat hiltzearen akusaziopean. Bai ikerketa zein epaiketa bera irregulartasunez beteta izan ziren (frogen manipulazioa, lekukoengan presioak, zuri arrazako pertsonen osatutako epaimahaia, bi izan ezik, presio politiko zein mediati-koak, e.a.).

17 urte geroago bizirik dirau, neurri handi batean nazio eta nazioarte mailan kolektibo, pertsona ospetsu eta erakundeek egindako presioari esker. Horrela lortu zen, esaterako, 95eko abuztuaren 17an finkaturiko exekuzioaren azalpena. (Albert Sabo epaileak erabaki hau sinatu zuen abuztuaren 7an, exekuzioaren hamar egun lehenago alegia).

Egoera hau berriro eman da: Ridge Gobernadoreak beste exekuzio agindu bat sinatu zuen, abenduaren 2rako. Mumia-aren defentsan dabilen lan-taldeak eta gizartearen presioak agindu honen atzerapena lortu du. Honek, Estatu Batuetako Epai Gore-naren aurrean 'Habeas corpus' errekurso bat aurkezteko aukera eman dezake. Hau, Estatuaren eskuetan hil aurretik, Mumia-ri geratzen zaion azken errekursoa izango litzateke.

Azken 17 urteotan, Leonard Weinglass-ek, Mumia-aren abokatuak eta bere lan-taldeak hainbat eta hainbat frogak eta lekukotasun piloa ditu. Hauek ikusita eta modu bidezko batean epaiketa be-

rra bat egongo balitz ez legoke Estatu Batuetan heriotz zigorra ezarriko lukeen epaimahairik. Horregatik, eta yanki gizartearen alderdi atzerakoienak egiten duten presioagatik kasua berriro irekitzeko eskari guztiak bertan behera utzi izan dira.


Guk aurrera daramagun kanpaina honekin hori da lortu nahi duguna: epaiketa berri bat Mumiarentzat. Baina beste helburu batzuk ere baditugu: esan nahi diogu Gobernu Yanki honi Estatu Batuetan justizia eta demokrazia nola aplikatzen diren begira gaudela. Gobernuak, hau errepresio, gartzela eta heriotzaren bidez egiten du. Kanpainaren helburua heriotz zigorraren abolizioa eta yankien sistema errepresibaren desagertzea da.

Eraiketa "legal" berri bat ekiditzeko etengabeko gutun sorta bidali nahi diegu egotzera honen aurrean erantzule diren instituzioei: William H. Yohn, kasuaren epaiburua, Tomas Ridge, Pennsylvaniako Gobernadorea eta Bill Clinton lehendakaria. Gutun hauetan epaiketa berri baten eskaria egiten dugu eta heriotz zigorraren erabilera-aren desadostasuna azaldu nahi dugu.

Ez dezagun Mumia bakarrik utzi!

Heriotz zigorrik ez!

Askapena, EPK, Kakitzat, KEM-MOC, Komite Internazionalistak, Mugarrak, Resumen Latinoamericano



**Iñaki
Apalategi**
(Goierriko Bertso
Eskolako ikaslea)

Urtero ezer ez erosteko
egiten dugu tratua
baina horretan hasi ezkeru
gero ezin bukatua
dirua joan egiten zaigu
ai Olentzero kaikua!
Ezer ez zela gertatuko nahiz
geneukan ziurtatua,
lagunak, hau da bi milagarren
urtearen efektua.

Urrun daudenen famili askok
duten gertukoen falta,
langabetuak orain bezela
inoiz dirurik ez dauka,
bizi ezina, bortxakeriak
eta tratu txarrak aipa.
Ez gaitzen gu kexa, geurea
hilabetekoa da ta,
hemen batzuek hilabetero
izaten dute aldapa.

Askatasunaren mintzoa

Eguberrietako egun berriotan, betierekotasunetik at, gehiegi oldoztu gabeko gehiegikerietarako joera dugun honetan, herdoiaren iltzetik zintzilikatutako txirringa hartu dut soberako mazapan, polboroi eta turroiak kirolaren galbahean ehotze aldera...

Aztiriko maldetan aztoraturik, iparrik gabeko hego-haizeak eki erlantz aierukorren umontzirantz narama, sartalde odolduaz haraindira. Txirringa karrankariaren aieneak, bi mila oroitzapen, bi mila bizipen, bi mila amets tolestean ditu N-2000ko zimurduretan, artatsu, norantza eta norabide anitzeko...

Goiz-Eder baserria, Mujikatarren borda, Ospeletako errota eta Zeraingo olak gibeleratuz, errepidean loratutako bi milagarren ametsean kulunkatzera noala, mila bederatziehun eta laurogeita hemeretzigarren bizipenak bere matazara bildu du nire haria. Peugeot-2000 modernoak maztaildutako zozo bat begitandu dut bide ertzari urte berri zoriontsua opatzen bainoago, noraezari muxuka; leloturik, begirada mugarik gabeko malenkoniaren basamortuan galdurik, lur errearen dardara hegoetan, eta burua, hodeien auzo.

Haitzulo bihurtu zait giza-lurra; isiltasuna, oihu sukartuen mezulari; izerdia, garratz. Nire bihotza sentimenduen labeen goritu da, taupadak berotasun urratuan irinduz. Hagin zorrotzekin kraskatu dut ogi kozkorren gogorra...

Barne indar mistiko batek hartaturik, txirringa bide bazterrean utzi eta zozoaren noraezean noraeztu naiz.

Eskuetan maitekiro hartu, bular artean goxatu eta urontzian geratzen zitzaidan ttanttekin burua igurtziz, mokoak bereganatu du xoxoaren txirulina, zeruaren goi-arnasa. Oh! hau izadiaren ederra!

Nik ez dut bi milagarren efetu erraldoian sinisten, eguneroko une, gune eta egintza neurgaitz eta ñimiñoen aberastasunean baizik, txikitasunaren handitasunean.

"Hegik hegan txorino, eta hire hegadan ardazu hezak presoak etxeratzearen, bakearen, osasunaren, zorionaren, sofrimendurik ezaren desioa eta aiherra".

Zozoa, nire gurariei men eginez, askatasunaren norantzan, Aizkorriko haitz gorrietan ezkutatu da hodeiertzean biharko ametsak urreztatuz...

Utziozu, Ama Lur, zure anatomia ttipiaren edertasuna abesten.



**Ekaitz
Goikoetxea**
'Mekola'

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoak: 943 88 57 50 - 943 88 57 54

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN

Arkupe
tapizegia

Tapizeak - Ohe estalkiak - Endredolak

Mantak - Malndireak - Storeak

Toallak - Gortinak eta osagalak

J. M. Barandiaran Plaza

☎ 943 88 00 84

ORDIZIA



SASIETA
MANKOMUNITATEA

BEIRA-ONTZIAK: IGLU BERDEAK:

Bai:

- ✓ Edozein koloretako botilak (zuriak, berdea, marroiak)
- ✓ Kontserba-flaskoak
- ✓ Lurrin eta kosmetika-flaskoak

Ez:

- ✓ Bonbilak eta fluoreszenteak
- ✓ Ispiluak
- ✓ Leihoetako kristalak
- ✓ Automobiletako kristalak
- ✓ Kristalezko edalontzi, pitxer, plater edo irudiak

Aholkua:

- ✓ Beirazko ontziak, korbato, tapoi edo antzeko hesgailurik gabe sartu edukinontzietara.

ETXEETAKO PAPER ETA KARTOIAK:

EDUKINONTZI URDINAK:

Bai:

- ✓ Egunkariak eta aldizkariak
- ✓ Iragarki-paperak (buzoietaoak, etab.)
- ✓ Kartoizko kaxa txikiak:

Edukinontziz edukinontzi

gailera kaxak, detergente kaxak, arrautzontziak, etab.

- ✓ Dendetan ematen dituzten paperezko poltsak.

Ez:

- ✓ Brikak
- ✓ Haur zapiak eta paper-zikiak
- ✓ Paper plastifikatu, ezkoztatuak edo argizaria eman-dakoak eta metalizatuak.

Aholkua:

- ✓ Kartoizko kaxak tolestatu egin behar dira edukinontzira sartu aurretik.

ONTZI ARINAK:

EDUKINONTZI HORIAK:

Bai:

- ✓ Plastikozko ontziak: ur-botilak, edari freskagarrienak, olioarenak, garbigarrienak (detergente likido, lisiba, leungarri, komun eta kristal garbigarrienak, etab.), kosmetika-gaienak (gelak, xanpuak, hidratatzaileak, etab.), jogurtenak, etab.
- ✓ Saltokietan ematen dituzten plastikozko poltsak edo zorroak.
- ✓ Plastikozko beste hainbat zorro, poltsa eta bildukin.
- ✓ Edari-brikak: esnearenak, zukuenak, ardoarenak, etab.

- ✓ Metalezko ontziak: edari eta kontserba-poteak, aerosolak, metalezko tapak, etab.

Ez:

- ✓ Beira ontziak: hauek edukinontzi berdean sartu behar dira
- ✓ Kartoia, egunkariak eta aldizkariak: hauek edukinontzi urdinean sartu behar dira
- ✓ Plastikozko jostailuak
- ✓ Etxetresna elektriko txikiak (xigorgailuak, plan-txak, etab.)
- ✓ Biberioak
- ✓ Gomazko eskuzorroak
- ✓ Garbitasun-tresnak (orra-ziak, kazolak, etab.)
- ✓ Fruta-kaxak, plastikozko baldea

Aholkua:

- ✓ Ez sartu zorroa edo poltsa ontzi eta guzti edukinontzira. Sartu lehenik ontziak eta gero zorroak edo poltsak.
- ✓ Tolestu brikak. Bai zure etxean bai edukinontzi horian leku gutxiago hartzen dute.
- ✓ Kendu tapak plastikozko ontziei.
- ✓ Ontziak hutsik (likidorik gabe) sartu eta garbiak ahal den neurrian.

Lehiaketa

Galdera

Nongoa da Joxe Azurmendi pentsalaria?

Erantzuna urtarilaren 24rako bidali behar da, Ordiziako 124 postakutxara. Bertan izena, helbidea eta telefono zenbakia zehaztuz.

Saria 'Euskal Herria krisia' Joxe Azurmendiren azkeneko liburua eta GOIERRITARREN kamiseta.

Aurreko irabazlea

Aurreko galderaren erantzuna: 1991ko abenduaren 21ean.

Irabazlea:

Larraitz Garmendia (Zaldibia)

SOROZABAL AUTO-ESKOLA

Mota guztietako baimenak:
B+E, G+E, D+E, A1 eta A


Aita Urdaneta ORDIZIA
☎ 943 88 72 76

IBAI-ONDO

Altzariak neurrira
Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

ERAKUSKETA ☎ 943 88 05 43
Antzizar Auzoa, z/g BEASAIN



Euskara txukunean

Egiten dugu - egingo dugu

Gaur umeen eta gaztetxoan artean asko zabaldu den forma batez hitz egin nahi dizuet.

Gaizki

Azkenaldi honetan, hitzetik hortzera entzuten diegu asko eta askori honelakoak: **Ematen didazu liburu bat?, Joaten naiz zurekin?, Egiten dugu lan hau?, Jolasten duzu nirekin?** Ez dira inolaz ere egokiak eta zuzenak. Izan ere, **ematen, joaten, egiten, jolasten** formek ohitura adierazten dute, adibidez **Urtero ematen didazu liburu bat, Egunero joaten naiz zurekin, Astero egiten dugu lan hau, Egunero jolasten duzu nirekin.**

Ondo

Nola esan behar dugu, bada, baimena, aholkua edo eskatu nahi dugunean? Bada, beti esan eta entzun dugun moduan, alegia: **Emango didazu liburu bat?, Joango naiz zurekin?, Egingo dugu lan hau?, Jolastuko edo Jolas egingo duzu nirekin?**

Beraz...

Badakizue, zuen ingurukoek, zuen seme-alabek, edo zeuk gaizki erabiltzen baduzu, zuzendu, euskararen onerako da eta.

Sagardoa upeletik ala botilatik?

Sagardo garaian upeletik noski.

Sagardoa edateko garai bat?

Normalean negua, sagardo berria egoten delako.

Sagardoarekin zer janari?

Idi txuleta eder bat.

Sagardoa, ardoa ala garagardoa?

Nik neuk edateko ardoa nahiago. Errioxakoa bada hobe.

Zer moduzkoa da aurtengo sagardoa?

Oso ona.

Parrandarako leku bat?

Anbiente ona dagoen edozein leku. Gustora zauden edozein leku.

Bizitzeko leku bat?

Gabiri, dudarik gabe.

Zer gorroto duzu?

Jendearen faltsukeria eta hipokresia.

Afari erromantiko baterako menua?

Jan fin eta goxoa. Kandela bat, musika suabea eta inguruan pakea.

Eta norekin afari hori?

Gehien maite duzun lagunarekin. Neska bada hobe.

Amets bat?

Gehien maite duzanarekin, lehen aipatu dugun afari erromantiko hori.



Lontxo Ormazabal

Korta sagardotegiko sukaldaria

Ana Telleria

DOKTOREA

DIETETIKA NUTRIZIOA

- Heldu eta umeen **gizentasuna**
- Mediku **jarraipen etengabea**
- Dieta erakargarri eta bariatuak etengabeko **laguntzarekin**
- Elikadura desegokiarekin lotura duten gaisotasunak (diabetes, kolesterola, bulimia, anorexia...) dituzten pazienteen **hezkuntza nutrizionala**
- Kirolarientzat **orientazio dietetikoa**

DONOSTIA
Arrasate zentru medikua
Arrasate, 53

943 46 35 44

BEASAIN
Kontsultorio Medikua
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

943 88 57 50

Auto EASO



**lbabe industrialdea, 13
LAZKAO**

**943 16 30 15
606 301 955**

PSIKOLOGI KLINIKOA



Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakia: E-2644

RPS: 420/95

JM Arana, 1 - 2. esk. esk.

AURRE ZITA

943 88 72 21

610 02 00 41

BEASAIN

UDALAK SUSTATUTAKO ETXEBIZITZEN SALMENTA

INFORMAZIOA:

Lanegunetan:

© 943 16 21 92

Larunbatetan:

10:00 - 12:00

Altzagako Udaletxean



Mila Aierbe, Ataungo astrologoa:

"Euskal Herriaren arazoa konpo zodiakoan fakto

Mila Aierbe Ataungo astrologoarekin izan gara 2000.

urteari eta datozen urteei buruzko hausnarketa eginez. Gaurrak biharra adierazten duela kontuan harturik, gomendioak ematen ditu ataundarrak. Euskal Herriarentzat hamarkada erabakiorra izango dela deritzo, bikoiztasunetik atera beharra omen dago eta.

Esoterikoki begiratuta zenbaki bakoitzak bere esanahia daukanez, 2000. urtea 2a da Mila Aierbek aurreratu digunez. "Esoterismo kontestuan, bata hasiera baldin bada, biak bikoiztasuna, dualitatea esan nahi du, ilargiaren eragin handiagoarekin. Gauak eguna behar du, egunak gaua, emeak harra, harrak emea, aberatsak pobre, pobreak aberatsa... Dualitate horretan murgildu gara".

2001. urtea, 3a izango da, esoterikoki begiratuta. "Bi gehi bat hiru da. Hiruak emaitza esan nahi". Emaitza, noski, hobea edo txaragoa izan daiteke. "2000. urtea zer da? Misterio bat? Bilakaeran aurrera joango garelakoan, behar bada atzera joan gaitzke. Kontu piska bat jarri beharra dago", dio ataundarrak.



Natura, gu baino indartsuagoa

Planeta desagitera doala esaten zaigu behin eta berriz. Teknikaren aurrerapena handia da 2000. urte honetan. Baina natura bera askoz indartsuagoa dela kontuan hartu behar dugu; onerako eta txarrerako. "Gu baino indartsuagoak dira lurra, sua eta ura".

Astrologia tresna natural bat da.
Gure zikloak ezagutzea gure alde dago.

Atlantidaren mitoa edo leienda gogorarazi digu ataundarrak, oraindik inork aurkakorik demostratu ez

duen mitoa. Mitoaren arabera, Iberiar penintsulatik Amerikarainoko zatian Atlantida izeneko kontinentea zegoen. Teknikan oso aurreratuak omen zeuden eta eguzkiaren indarra eskuratu nahi izan omen zuten. Natura menperatu nahi horretan, kontinentea desagertu egin omen zen. Gutxi batzuk salbatu zirela dio mitoak, tartean euskaldunak. "Atlantidarena ez dakit egia den ala ez, baina ez zela izan ere ez dute demostratzen. Atlantidarena egia balitz, katastrofe baten aurrean geundek, baina ez dut katastrofean sinisten. Sinisten dudana da, nahikoitsuak garela. Geure zilborrari begira gaude eta horrela ezin dugu aurrerapen handiegirik egin. Herri harek hori egin bazuen eta ez baldin badugu ezer ikasi, alperrik ari gara. Hori egia baldin bada, alper-alperrik pasatu dira 2000 urte".

Beraz, bidaian, denboran aurrera goazela ezin daiteke esan Milaren ustez. "Planeta desagitera baldin badoa nolatan goaz aurrera? Gauza askotan oso destruktiboak gara, beste batzuetan eraginkorrak ere bai. Naturari egur handia ematen diogu eta Atlantidaren kasu berdinean gaude. Artikoa desegin egin behar dela, berriz ere izotzaldiak izan behar direla... esaten da".

Euskal Herriaren etorkizuna?

Datozen urteak Euskal Herriarentzat oso garrantzitsuak izango direla esan digu Mila Aierbek. "Gaur egungo bikoiztasun horretatik ezin da hirurik sortu, herri guztia nortasuna ez da aterako batena askatzen ez bada. Bi aldeetatik, lehenbailehen konponbideak bilatu behar direla ari naiz esaten behin eta berriz. 97tik ari naiz esaten. Aukera bat badago, baina lehenengo hamarkadan zodiakoan faktore batzuk daude. ETA sortu zeneko mugan gaude. Konpondu eta amaitu egiten da, edo bestela nahiko zorabioan sartu gaitzke, galera handiekin".

Euskal Herria kaprikornio da Milaren iritziz, Iberiar Penintsula sagitario. "Berriz ere krisian sartuko da sagitario, alegia, Penintsula. Indargaltze horretan guk indar hori berreskuratu egingo dugula uste dut. Lehenengo hamarkada horretan burujabetza lortuko dugula uste dut,

kontzeko, lehenengo hamarkadan, ere onak daude "



justiziaz dagokigulako". Tauro, akuario eta kaprikornioentzat garai garrantziatsuak izango omen dira.

Noraeza handi honetan, "lehenengo hamarkada honetan indartu liteke arrazoiak eta herri indarra. Beste herri txiki battzuek askatzeko baino gaitasun gehiago dauka. Baina askatzeak gure artean borrokan segitzea esanahi al du? Behin askatuta, ba al dakigu nora goazen?"

Baina emaitza ona ala txarra izan daiteke. "Emaitza hori gogorra izango balitz, bukaera gogor bat? Hala ere ez dut uste. Beste Hittler bat etorriko balitz pentsa zer egingo genukeen. Bikoiztasuna ona ala txarra da, baikorra ala ezkorra. Xurgatzailea, menperatzailea den norbait sortuz gero, nora goaz? Baina ez gara prebenitzeko gauza. Pertsonak horretan ez dugu gehiegi aurreratu. Herri libreak izango dira, baina beste batzuk zapal-

tzeko ez dute izan behar. Horretarako bilakaera berezi bat izan behar da, lehenengo pertsonala eta gero kolektiboa. Saiatzen ari gara".

**Nire esku egongo
balitz, denboran
atzera egingo nuke,
Grezia garairaino.
Garai hortatik
gizakiak ez du
bilakaerarik izan
gizaki bezala.**

Politikoei astrologiari begiratzen diotela aitortu digu ataundarrak, "nahiz eta beraien ez onartu. Hauteskunde egunak ilargiaren arabera aukeratzen dituzte. Batakanoan ere badituzte bere astrologoak".

Espirala

Espirala, borobila da guztia ataundarraren esanetan. "Borobila hasiera eta bukaera gabeko izate edo indarra da. Hori gure kontzientzia da, nolabait ere. Gure kontzientzia hori indartzeko eguzkiaren indarra behar dugu. Kristoren aurretik gizakia bilakaeran hor zihuan, eta beharbada gauza askotan gu baino aurrerago. Guk ez dakigu aurrera ala atzera goazen, biraka gabiltza, eta lehen egondako urrats batzuk berriz ere pasatu beharrean gaude".

Denbora kontatzeko ezberdinak omen daude. "Mundu honetan herri asko daude eta denbora neurtzeko era ezberdinak daude. Baina denbora kontzeptualki ulertzen ez badugu, alper-alperrik ari gara. Denbora kontzeptua ez dugu ulertzen. Iragana, gaur eta biharra gure kontzeptuaren arabera jasotzen ditugu. Gaurkotasanak biharra ekarriko du eta biharra gaurkoaren arabera izango da. Sagar landare bat aldatzen baldin badut, asko maite izanda ere, handik ezin ditut udarak edo platanok jasoko, gehienez ere, sagar goxo eta onak". Milak ez daki espiralaren hasieran, bukaeran edo erdialdean gauden. "Ondo baino gehiago oker goazela esango nuke".

Hobeto atzera

Gaur egungo egoera ikusirik, Milaren ustetan, atzerapen bat hobe da, txarrerako aurrerapen bat baino. "Nire esku egongo balitz, denboran atzera egingo nuke, Grezia garairaino. Garai hortatik gizakiak ez du bilakaerarik izan gizaki bezala".

Diruaren Jainkotzea, justiziarik eza eta galdutako hainbat balorek kezkatzen du Mila. "Gaur egun errespetua diruarekin lortzen da. Askatasuna diruaren baitan dago eta hori horrela bada, ez gara aske. Diruak izugarritzko indarra hartu du". Klase sozial berrien sorrera ere aurrirakusten du ataundarak. "Garai batean, eskolara joandakoen eta joan gabekoen artean zegoen klase ezberdintasuna. Orain antzeko zerbait gertatu behar zaigu: ordenadoreak menperatzen dituen norbait izango da, menperatzen ez duena ezer ez. Hori al da aurrerapena? Teknika ez da txarra, guztion eskura egonez gero".

Gure betiko baloreak berreskuratu beharrean gaudela uste du. "Norberak baloreak garatzen hasten bagara, kolektiboa oso indartsua egongo da. Kolektiboa bakoitzaren ispilua da. Oinarriak ez ditugu sendoak. Arazo pertsonalak ez badira konpontzen, kolektiboak arazo berdinak izango ditu".

Mila Aierbe, Alaungo ast

Txileko bikote bat gazta nola egiten

"Bost urteren buruan Txilen ardi-gazta"

Cristián Burrows eta Javiera Quiroga Idiazabalen izan dira hilabete pasatxo gazta nola egiten den ikasten. Txiletik Euskal Herrira etorrita, Ondramuño baserrian aurkitu dute gaztagintzan aritzeko irakaslea. Jexux Aranburuk erakutsi dizkie "gazta egiteko ia sekretu guztiak, den dena erakusterik ez baitago". Ofizioa ikasi ondoren, Txileko bikote honen helburua, bost urteren buruan herrialde hartan ardi gazta egin eta saltzea da.

Aurretik ere ezagutzen zuten Euskal Herria, Cristián-en amona euskalduna zen, eta bere aitak Tolosako Eskolapioekin harremana baitzuen. Familiakoak eta ezagunak bisitatzea etorrita-



koan izan zuten ardi-gaztaren berri. Cristián-en esanetan, "Txilen ez dago ardi-gazta jateko ohiturarik. Hori dela eta, enpresa ikasketak bukatu nituenean, bertan, esnegintza sektoreari bultzada emateko, ardi-gazta egin eta saltzeko zeuden aukeren inguruko ikerketa bat egin nuen". Ikerketa hark ardi-gaztak Txilen ere arrakasta izan zezakeela erakutsi zion bikoteari. Hala ere ezertan hasi aurretik beharrezkoa ikusi zuten beraien etorkizu-

na izan zitekeena gertutik ezagutzea.

Gobernuz Kanpoko Erakunde (ONG) bat tarteko iritsi ziren Idiazabala, eta haien bidez izan zuten Jexux Aran-

bururen berri. "Irakaslea" aurkitu ondoren hasi ziren gazta nola egiten zen ikasten. Javieraren hitzetan, "aurretik behi-gazta nola egiten zen bagenekien gutxi gora-behera, baina ardi-gaztaren arrastorik ere ez genuen".

Lanbide lotua

Gazta egiterakoan esnearen mamitzeak deitu die gehien atentzioa. Idiazabalen hilabete egin ondoren gazta egiteko prozesua "hain zaila ez dela" diote. "Lanbide honi, eskatzen duen arreta ematea zailagoa iruditu zaigu. Azken finean lan honetan ez dago ez oporrik ezta zubirik ere, oso lan lotua da". Izan ere bikoteak gazta egiteko prozesu guztia gertutik ezagutu

"Lanbide honi, eskatzen duen arreta ematea zailagoa iruditu zaigu. Azken finean lan honetan ez dago ez oporrik ezta zubirik ere, oso lan lotua da"



MUJICA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN

gaiten den ikasten izan da Idiazabalen

gazta egiteko moduan izango gara"

du Idiazabalen egindako hila-
betean.

Txilera bueltan hasiko dira beraien ardi-gazta produkzioa lortu ahal izateko urratsak ematen. "Prozesu luzea izan-
go da, lehendabizi ardiak lor-
tu behar dira, han daudenak
haragitarako erabiltzen baiti-
ra, esnea ez da ezertarako
aprobatxatzen". Lan horretan
bost urte behar izango dituzte
Cristián-en esanetan. Duela bi
urte Euskal Herritik latxa ar-
talde bat eramán zuten baina
haiek ikerketak egiteko era-
biltzen dituzte. Ondoren gazta
egiten hasitakoan "ardiaren
eta behiaren esnearekin naha-
sian egin beharko dugu gazta
jendea ez baitago ohituta ho-



rrelako zapore fuertera".

Irakasle eta ikasle onak

Ordurako ziurrenera Euskal
Herrira beste bisitaren bat
egingo dute, besteak beste,
Ondramuño baserrian egiten

ari diren gaztandegi berria
martxan ikusterik izan ez du-
telako. Herrian irakasle izan
dutena ere prest dago "hala
behar izanez gero" Txilera jo-
ateko. Jexux Aranbururen
esanetan, "ikasle onak izan

dira. Eguneroko martxan sor-
tutako arazoei aurre egiten
ikasi dute behintzat". Jexuxen
arabera, "dexente ikasi dute.
Izan ere ez da gauza bera gaz-
ta nola egiten den azaltzen
duen liburua irakurtzea edo
prozesua bertatik bertara ja-
rraitzea".

Bikoteak Errege egunean
alde egin zuen Idiazabaldik.
Jendearen izaera irekia eta
"feri eta antzekoetan izaten
den giroa"ren berri emango
dute besteak beste Txilen eus-
kaldunak nolakoak garen gal-
detutakoan.

Xabier Urteaga

8357

**Zenbaki horixe izan da
GOIERRITARRA
aldizkariaren aldeko
zozketako zenbaki
saritua. Mutiloako
Ostatuan saldua izan
zen errifa.**

SARITUA:

MERTXE GOIA mutiloarra

300.000 pezeta ditu eskura Mertxe Goia mutiloarrak, nahi duenean, nahi duen lekura eta nahi duenarekin gozatzeko. Abuztuan familiarekin Mediterraneo aldera joango omen da. Zorionak eta ondo ibili!

Eskerrik asko, errifa erosiz, GOIERRITARRA aldizkaria lagundu duzuenoi.



Iker Garmendia Urola Bidaiakeko ordezkaria, Mertxe Goia saritua eta Aitor Asurmendi Goierritarrak Kultur Elkarteko lehendakaria.

Maria Oruna beasaindarra, Miss Gipuzkoa berria

Abenduaren 29an aukeratu zuten Maria Oruna beasaindarra, Miss Gipuzkoa 2000, Gipuzkoako neskarik ederrena. Lehenengo egun hauek oso mugituak eta lanpetuak izan ditu. Elkarrizketa ugariri erantzun behar izan dio eta GOIERRITARRAri ere egin dio tartetxo bat. 24 urte ditu Mariak, 1,73 metroko altura eta 90-60-90 neurriak. Dotoretasunaren titulua ere irabazi du. Datozen bi hilabeteetan, Miss Euskadi eta Miss España lehiaketak izango ditu.

- Espero al zenuen Miss Gipuzkoa aukeratzea?

- Ez nuen espero. Lehenengo aukeraketa egin zen 50 bat nesken artean. Finaleko 15 horietan sartzea espero nuen, baina Miss Gipuzkoa izatea ez. Konpetentzia handia zegoen.

- Lehenengo aldia al zen horrelako lehiaketa batera aurkezten zinela?

- 18 urterekin publizitate agentzia batean egon nintzen eta handik argazki bat bidali zuten, Smirnoff lehiaketara. Espainia iparraldeko Smirnoff lehiaketarako sailkatu nintzen. 'Linda de Euskadi' n ere parte hartu nuen.

- Nolatan animatu zinen? Adin muga-mugan zeunden, ezta?

- Bai, mugan nengoen, 25 urte arterartekoa izaten baita



Miss lehiaketara aurkezteko adina. Ondo sentitzen nintzen eta ingurukoek babesten ninduten eta aurkeztu egin nintzen. Kote Cabezudo nire argazkilariak bultzatu ninduen batez ere, adin muga kontuan hartuta.

- Esperientzia bezala zer moduzkoa izan da?

- Oso polita eta ona. Agian ez duzu etorri daitekeenean asko pentsatzen, baina horrelako lehiaketek ate asko irekitzen dituzte. Publizitatean eta telebistan lan egitea gustatuko litzaidake. Ez dakit telebistarako balioko dudana, baina nahiko irekia naiz eta saiatzea gustatuko litzaidake. ETBn aukera ematen da. Denborarekin arte dramatikoa piska bat ikastea ere nahiko nuke. Pasarela egitea ere gustatuko litzaidake, baina ez dut altura handiegirik.

- Horrelako lehiaketetarako prestakuntza berezia behar al da?

- Kirola egin, linea zaindu, solariumera joan eta ibiltzen ikasi.

- Neurriek garrantzia handia al daukate? 90-60-90 neurri "perfektuak" kontuan hartzen al dira?

- Neurri horiek baldin badi-tuzu ondo, baina garrantzitsuena ondo proportzionatua egotea da.

- Miss Euskadi eta Miss España otsailean eta martxoan izango dituzu.

- Miss Euskadi otsailean izango da, zein egunetan ez dakit oraindik. Beste urteetan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoatik bosna neska aurkezten ziren baina aurreten zortzina izango gara. Aukerak guztiok dauzkagu, eta saiatu egin behar da. Ea aurreten Miss Euskadiko lehiaketa Gipuzkoan egiten den. Beti Bizkaian egiten dute eta gehienetan bizkaitarrak aukeratzeko dituzte. Espainiakoan oso zaila da, eta ahalik eta ondoena egiten saiatu behar ko naiz. Gipuzkoar batek bi urtean segidan irabaztea oso zaila, baina dena da posible.

- Horrelako lehiaketetan tongoak egiten direla esan ohi da, antolatzen duen moda agentzieta-

ko neskek aukeratzeko dituztela.

- Ez dago tongorik. Ni ez nengoen agentzia, nahiz eta bertako argazkilariarekin aritu lanean. Normalean neska gazteagoak aukeratzeko dituzte. Beti agentziakoei irabazten dutela esaten baina ez da egia. Epaimahaia egoten da eta bere gustuen arabera aukeratzeko da.

- Zein da Miss Gipuzkoa izateko perfila?

- Denetik piska bat. Egoten jakitea, politegia izan gabe ere erakargarria izatea, neska osoa izatea.

- Nolako da Maria Oruna?

- Herriko neska bat, arrunta, oso alaia, nire lagunaren oso laguna eta oso tolerantea.

- 'Neska polita, neska tuntuna' esan ohi da.

- Nik uste dut ezetz. Jende asko ezagutzen da mundu honetan eta denean bezala, denetik dago. Gauza batek bestearekin ez dauka zerikusirik.

- Anorexiaren gaixotasuna indarra hartzen ari da. Nola bizi duzue?

- Nik oso urrutitik bizi dut. Kirola egin eta osasuntsu jan ez ondo mantentzen naiz. Gozozalegia ere ez naiz eta horretan zortea daukat. Anorexiarekin jendea kontuz ibili behar da. Gainera, polita ere ez da. Ilean, azazkaletan, begiradan... nabaritu egiten da eta ez da polita.

- Ikasketak tarte honetan baztertu egingo al dituzu?

- Majisteritza ikasten ari naiz eta gai batzuekin saiatuko naiz. Baina gehienbat euskararekin saiatu beharrean nago.

'Tolare': sagardoa bertan egiten duten sagardotegien bereizgarria

Iaz hasi ziren sagardoa bertan egiten duten sagardotegiak bereizteko 'tolare sagardotegia' izena erabiltzen. Izendapen honen zergatia jakitera jo dugu beraiengana.

Orain arte ez zen bereizketarik egiten. Sagardo kupelak dauden lekuei Sagardotegiak esaten zaie eta hala dira. Baina aldea dago, hauek batzuk beraiek egiten dute sagardoa eta beste batzuk eginda erosten dute. Ezberdintasun hori egiteko asmoz iaz Gipuzkoako Sagardogileen Elkartek 'tolare' hitza erregistratu zuen. Horrela, orain, bertan sagardoa egiten duten sagardotegiek 'tolare sagardotegia' izena eramaten dute.

Hala ere, sagardogile txiki batzuk ez daude elkartearen sartuta eta hauek ezin dute elkarteak erregistratua duen 'tolare' hitza erabili. Goierrri eta inguruan Zeraingo Ota-

tza, Ataungo Urbitarte, Legorretako Aulia, Ikaztegieta-ko Begiristain eta Abaltzisketako Zalbide 'tolare sagardotegiak' dira. Olaberriko Etxe-Zuri eta Altzagako Olagik ere beraiek egiten dute sagardoa baina ez daude elkartearen barruan.

Sagardogileek aurrera begira ere badute nahikoa burohauste, osasun aldetik existentzia berriak eta aldaketa

handiak baidatozkie datorren 2-3 urteetan. Honek inbertsio handiak egitera behartuko dituzte.

Bertako sagarrekin egindako sagardoa

Aurrerago begira, sagardoa bertako sagarrarekin bakarrik egitea izango zen helburu. Baina horrek denen aldetik zerbait jartzea eskatzen du: sagar produktoreek sagar

Aurtengo sagardoa

Aurten sagardoa oso berdina omen dator. Bertako oso sagar gutxi izan da eta gehiena kanpotik ekarri beharrean izan dira sagardogileak. Iaz berriz bertan sagar asko izan zenez, gehiago erabili ahal izan zuten. Baina aurten izan den sagarra, bai bertakoa eta bai kanpokoa, kalitate handikoak izan dira. Hau eguraldiari esker izan da, eguzki asko eta euria bere garaian izan baitute sagarrondoek. Honek sagardoren kalitatea ere ona izatea ekarri du, batez ere oso sagardo berdina izatea, gora-behera gutxikoa.

hobeak produzitzea, sagardogileak sagar hori gehiago ordaintzea eta sagardo kontsumitzaileak edaten duen produktu hori aintzat hartzea.



PATXI MOZORRO DENDA

- PELUKAK
- BIGOTEAK
- KAPELAK
- MASKARAK
- BISUTERIA
- MAKILAJEA
- ANTZINAKO, ANIMALIA, FANTASIAZKO... MOZORROAK
- DOTORE ETA ORIJINALAK

ADIN ETA NEURRI GUZTIETAKOAK
ALOKAIRUA 1500 Pezetatik
SALMENTA 1990 Pezetatik

Astelehenetik ostiralera:

10:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara

Larunbatetan: 10:00etatik 14:00etara

☎ 948 468 718 - 619 851 116

Larratxota, 2 OLAZTI (NAFARROA)

LEIAR

KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70
BEASAIN



LAZKAO GARAJEA

Senpere Industrialdea

☎ 943 882442 - 943 888901

Faxa: 943 888901

LAZKAO

Autowag, s.a.



☎ 943 888 254 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN



Gabon eskea

Gabon egunez bi talde ibili ziren kantari etxez etxe: talde bat eskola txikikoak andereño eta gurasoekin; eta bestea katekesikoak, gazte eta helduez osatutako taldea.

Gabon eske honen antolatzailak katekesia, eskola eta guraso elkarte dira. Talde hauen ordezkariak eskerrak eman nahi dizkie herritar guztiei, izan duten esku zabaltasunagatik. Izan ere, egun horretan bi taldeen artean 283.000 pezeta bildu baitzituzten. Diru hau, talde hauek urtean zehar antolatu dituzten ekintzetan erabili ohi da.

Urte berria, aktibitate berriak

2000. urtea aktibitatez beteta daukagu, izan ere Kultur batzordeak antolatu dituen ikastaroek erantzun ezin hobe izan dute. Urtarrilaren 10ean aerobika egiteari ekin dio hamabost laguneko talde batek, asteen bi egunean pilotalekuan jardungo dira.

Baita ere urtarrilaren 10ean hasi dira ingeleseko ikastaroak, dozena bat lagun bi taldetan banatuta, asteen hiru orduz saiatuko dira hizkuntza honekin.

Urtarrilaren 11n, berriz,

Otatza sagardotegia

Sagardotegi denboraldia urtarrilaren 14an hasiko du, Otatza sagardotegiak. Denboraldian zehar gauero irekiko du asteazkenetan izan ezik. Larunbata eta igande eguerdietan ere irekita egongo da. Beste egunetan aurrez eskatu behar da. Aurten txotxa irekitzera Ainhoa Aierbe, Goenkaleko 'Leonor', etorriko da.

euskara ikasteari ekin diote, gure hizkuntza menperatzen ez duten herritarrek, Maizpide euskaltegiko irakasle batekin.

Mus txapelketa

Liztormendi elkarteak, urtero ohi duen bezala, aurten ere Mus txapelketa antolatu du, urtarrilaren 22an. Arratsaldeko 4etan hasiko da.

Bilera orokorra

Urtarrilaren 23an eguerdiko 12etan Kultur-etxeke urteroko batzarra izango da.

Santa Ageda eskea

Santa Ageda eskerako entseiuak urtarrilaren 25 eta 27an eta otsailaren 1 eta 3an gaueko 9,30etan Kultur-etxean izango dira.

Mari Flor Mendizabal



Kasinoko bertso jaialdia urtarrilaren 22an

Datorren larunbatean, urtarrilaren 22an, Batasun Kasinoak antolatu eta Kultur Etxearen eta Udalaren laguntzarekin bertso jaialdia izango dugu herriko pilotale-

kuan. Bertan, Asemendi Barrerenaren alde aritutako bertsolari berberak izango ditugu. Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Angel Mari Peñagarikano, Jesus Mari

Irazu, Jose Agirre eta Iñaki Murua. Gai-jartzailea: Laxaro Azkune.

Aurten ere antolatzaileek berogailua jarriko dute. Azken jaialdian eman zuten maila eta sortutako giroaren ondorioz jende ugari bertarutuko dela espero da.

Organo kontzertua

Urtarrilaren 15ean, larunbatean, organu kontzertua izan-

go dugu Parrokian, iluntzeko 8etan.

Bideo emanaldia Kultur Etxean

Urtarrilaren 16an, bideo emanaldia eskainiko du Guraso Elkarteak Kultur Etxean. Arratsaldeko 5etan izango da eta oraingoan 'Ela Ada Novata' botako dute.

Eduene Albizu

OSKARBI
OINETAKOAK



Mota guztietako eta adin guztientzako oinetakoak.

Kickers

K. Nagusia, 25
88 19 44 ORDIZIA

Barandiaran ZERAMIKAK



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

943 88 79 72 Senpere, 7 BEASAIN

Heriotz zigorrari zigorra

Lazkaoko udala, beste hainbat erakunde eta pertsonaia famatuen antzera, Estatu Batuetako politika aldatzeko ahaleginetan murgildu da, EH-k aurkeztutako mozio bati esker. Izan ere, heriotz zigorraren gauzaperari gaitzespenik tinkoena erakustea erabaki zuen udaleko osoko bilkurak abenduaren 15ean. Erabaki honen oinarrian Mumia Abu-Jamal kazetari ospetsuaren kasua dago.

1982an Mumia Abu-Jamal, Philadelphiako polizia departamentuaren arrazakeria nahiz bortxakeria gogor salatu zuen Pantera Beltzen kide ohia, polizi azalzuri baten hilketagatik kondenatua izan zen. Estatu Batuetan afroamerikar gehien heriotzera zigortu dituen epailea izan zen Mumia epaitzeaz arduratu zena. Bere zigorra alde zurretik jakina zen. Hala ere, Mumiari egotzi zitzaion karguaz ez dago inolako frogarik. Honez gain, epaiketari Mumiaren eskubide konstituzionalak gutxienez 29 aldiz urratu ziren. Bere exekuzioa abenduaren birako finkatua izan bazen ere, apelazio baten bitartez hura geldieraztea lortu zen.

Hori dela eta, Udalak Estatu Batuetako Gorte Gorenean Audientzia berri bat egiteko eskaria luzatu du, Mumiaren epaiketari aurrera eramane ziren irregularitate guztiak aztertzeko. Lazkaoko alderdi politiko guztien

arabera, Mumia Abu-Jamalen askatasuna eskatzeak, errugabeak diren pertsonen exekuzioa ez azkartzeko borrokatzea adierazten du, baita Estatu Batuetan heriotz zigorra desagertzeko aurrera pausu bat ere. Estatu Batuek oinarritzko eskubideei buruzko diskurtsoak emateko aurregia dute, baina oraindik ere ez dira gai iparramerikarren funtsezko eskubide bat errespetatzeko; bizitza eskubidea alegia. Hona hemen, Lazkao bezalako herri batek herrialde bati emaniko lekzioa.

Udalbiltzarekin bat eginik

Iruñan aitortutako borondate politikoari jarraituz, lehen euskal erakunde nazionala sortu zen, Udalbiltza. Udalbiltzak Euskal Herriaren lurraldetasuna adierazten du, nazio moduan aritzeko aukera ematen digu eta nazio bezala munduaren aurrean agertzeko modua ere eskaintzen digu. Hori dela eta, Lazkaoko Udalak Udalbiltzaren helburuak, egitasmoak eta izatea bere egitea erabaki du. Bertako kide izateko borondatea adierazi du, Euskal Herriaren eraikuntza demokratikoak horrelako erakundeen beharra duelako segurtasunez. Hau da, gure Udala jada integraturik dago, auzolanen, denen borondatez eta partehartzez osatu eta egituratutako euskal instituzio nazional honetan.

Elordi Garcia



Futbolerako grina

Aurten lehendabiziko aldiz Areto Futboleko ekipoa sortu da, kirol honetan zegoen hutsunea betetzeko asmoz. Futbol Zazpiko Txapelketa eta preferente mailako taldea desagertzean, Lazkaoko gazteei murriztu egin zitzaion kirol hau praktikatzeke aukera. Hori dela eta, Arruabarrena-Lazkao izeneko ekipoa jarri dute martxan. Talde hau aurrera ateratzeko Lazkaoko patrozinatzaileen laguntza ezinbestekoa izan da. Hemen denen izena aipatzea ezinezkoa izango litzateke, baina hala eta guztiz ere, ekipoa honek publikoki eskerrak eman nahi izan dizkiete.

Harkaitz Sebastian, Asier Etxarri, Gorka Munduate, Jokin Agirreurreta, Iñaki Mendizabal, Anakotz Arratibel, Eñaut Aldanondo, Unai Arnaz, Iñaki Tello, Gorka Alonso, Iker Altuna eta Txemi Aizpurua ditugu Arruabarrena-Lazkao ekipoko partaideak. Entrenatzaileak berriaz, Imanol Aran, Aitor Tello eta Kepa Goenaga eta delegatua Unai Aldasoro. Hauek guztiak ekipoa 2.mailan kokatzea erabaki zuten. Baina, jadanik amaitu dute lehenengo buelta eta bigarrenak gelditu dira. Hala ere, gorago igotzeko espektatibak ez dira txikiak beraien artean. Indarra eta kementa ez zaie falta behintzat.

Astotxo eguna

Astoa berriro ere protagonista bihurtu zen pasa den igandean gure herrian. Izan ere, urtero bezala Lazkaoko Astotxo Eguna ere agurtu zituen Gabonak. Eguraldia lagun izan ez bazen ere, 1652. urtean jaio zen ospakizun honek festa giro ederra sortu zuen. XVII. mendetik hona ordea, hainbat aldaketa izan dira. Dena den, oraindik ere mantentzen da Monjen konbentuko meza nagusia. Bertan, gaur egun bezala Familia Sakratuaren irudiak ikusteko aukera izaten zen. Obleen salmenta ere festa berezi honetako erreferente garbia izan da betidanik. Baina Zawopi azken urte hauetan egiten ari den lanak ere izugarritzko arrakasta eman dio egun honi. Lazkao Txiki zelaian egiten den Egiptorako ihesaren aurkezpen famatua baita jada inguruko herrietan.

Azken hiru urte hauetan, ordea, beste ekintza batzuk burutzeari ekin zaio. Antsoategi Kultur Ekarteak astoa protagonista nagusitzat duten hainbat aktibitate eramaten ditu aurrera. Asto erakusketa ere hortxe izan genuen, bere lehiaketa eta guzti. Ekitaldi hauek guztiak, Astotxo Eguna gero eta bereziagoa dela erakusten digute. Lazkaotarrontzat jada tradizioa bilakatu dena.



Giro ederra urte zaharreko asto karreran

Urteari amaiera berezia emateko herriko gazteek antolatutako asto karreraren inguruan giro aparta sortu zen herrian eta benetan eskertzekoa da tarteka-marteka horrelako ekintzak antolatzea herritarrek une atsegina igarotzeko aukera izan dezaten.

Aurrez adierazi bezala, hamar astok hartu zuten parte lasterketan eta astoen gainean zihoazen lagunak itxura liraintasunaren eredurik erakargarriena ez izan arren, ederki asko moldatu ziren eta bakarren bat edo beste erori bazen ere, kontuan izan behar dugu zenbait inoiz asto baten gainean jarri gabe ze-

goela, nahiko txukun eta egoki heldu ziren helmugaraino.

Irabazlea "Korta" jatetxe-ko sukaldaria den Lontxo Ormazabal izan genuen; bigarren Joseba Elgarresta eta hirugarren Jon Ander Elgarresta. Lehenengoak 17 minutu eta 13 segundo behar izan zituen ia bi kilometroko ibilbidea egiten eta bigarrenak 13 segundo gehiago.

Antolatzaileak oso pozik daude jendearen erantzuna ikusita eta datorren urterako ere badute zerbait prestatzeko asmoa, nahiz eta behar bada ez izan asto karrera.



Gidatzeko karneta ateratzeko ikastaro berezia

Adinez nagusia izan eta arrazoi batengatik edo besterengatik gidatzeko agiria edo karneta ateratzerik izan ez dutenentzat ikastaro berezia antolatzeko asmoa du Goi-men elkarteak.

Ikastaro horren berri gehiago jakin nahi duenak Nikolas Igarzabal jaunari deitu besterik ez du edo bestela herriko udaletxera.

Siloko belar bolen plastikoak bilduko dira

Hil honen 18an bilduko dira siloko belar bolen plastikoak eta ondorioz interesaturik legokeenak bezperan atera beharko litzuzke plastiko horiek, bestelako plastikorik ez da onartuko, honako hiru leku hauetako batera: Kortzu-Azpikoa, Korta-ingurua eta Etxeberriango zubia. Aurrez behar bezala seinalizatuko dira leku horiek.

Gabino Murua



Anduaga industrialdea amaiturik

Eskualdean somatu den garapen industrialaren partaide izan dugu Ezkio-Itsaso. Mendeetan zehar, gure herriaren ekonomi arloa lehen sektorean oinarritu da. Dena den, baserrian lana gogoz egiteaz gain herritarrek ingu-

ruko Udalerrietan kokaturiko enpresetara abiatzen ziren.

Garai horretan, Patricio Etxeberria eta Orbegozi ziren garapena eta etorkizunaren eredu. Bi erraldoi hauen alboan, hainbat enpresa txiki sortu ziren Ezkio-Itsaso alde-

an. Lehen asentamenduak Eitza barrenean (Ayma, Gelman) eta Iberdrolaren zentral inguruan sortu ziren. Bide gurutze den Ezkio-Itsason baserriak eta enpresak ondoko bizitzan hasi ziren.

Denbora igaroz joan den heinean, poligono berri eta aurreratuagoaren beharra somatu zen herrian. Santa Lutz Anduaga auzoan kokaturiko industrialde berriaren eraikuntza lanak 90. Hamar-

kadaren lehen urteetan hasi ziren. Krisi ekonomikoaren eraginez, geldialdi sakona jasau zuen, baina garai oparoagoak iristearekin batera industrialdearen lanei azken bultzada eman zaie.

XXI. mendearen hasieran, Anduaga industrialdearen babesean, hainbat enpresa txiki Ezkio-Itsasoren etorkizun ekonomikoaren zati garrantzitsu bihurtu dira.

Joseba Etxezarreta

1.555 biztanle

Urte berrian sartzearekin bat joan den urteari buruzko balorazioa egin zale gara, eta joera horren harian eskaini dizkigu datuok Udaleko zinegotzi den Jexux Goikoe-txeak. Jarraian datozkigun taulaotan ikus ditzakegu Ataungo biztanleriari dagoz-kien kopuruek azken bost urteotan, 1995.etik 1999.era, jasan dituzten gorabeherak.

Biztanle kopurua, aipatu epe horretan, 57 pertsonetan jetsi bazen ere, eta azken urteotan beherakako joera mantendu badu ere, esanguratsua da 1995. urtearekin gonbaratuz gero, jaiotzek 99.ean egin zuten gorakada. Orduan baino 10 ume gehiago jaio ziren iaz. Heriotza gehien izan zen urtea 1996.a izan zen, 23, baina iazko kopuruak begiratzen baditugu orduan baino 6 pertsona gutxiago hil zirela konturatuko gara, 95.eko kopuruaren pare. Herriratu diren kanpotarren kopuruan eman den gorakada ere nabarmengarria da, iaz 47 pertsona etorri ziren kanpotik hona bizitzera, baina horrekin kontrajarriz heritik kanpora bizitzera joan direnen kopuruak gorakako joera mantendu duela ere kontutan hartu beharrekoa da.

99.ean duela bost urte baino 14 pertsona gehiagok utzi zuten herria. Azkenik, nabarmengarria da baita ere ezkontzetan egon den gorakada. 95.ean ezkondu ziren 4 bikoteen parean, edota 96.eko bakarraren parean iaz 9 bikote ezkondu baitziren.

Adin eta sexuaren araberrako datuei dagokienez eta, 1999ko abenduaren 1eko datuak kontutan hartzen baditugu, Ataungo biztanleria 812 gizon eta 743 emakumek osatzen dugu. Aipatu datan Ataunek 1555 biztanle zituen, beraz.

Bestalde, eta populazioa adinka sailkatuz gero, nabarmena da Ataungo biztanleriaren zahartze joera. Hori adierazten digu 16 urterterkoen (168 pertsona) eta 66tik gorakoen (344 pertsona) kopuruak alderatzean lortzen dugun emaitzak behintzat. Kontutan hartzekoa da gainera, 75 urtetik gorako pertsonen kopurua.

Agurtzane Bikuña

Adina	Gizonak	Emakumeak	Guztira
0-16	89	79	168
17-26	104	97	201
27-45	232	210	442
46-65	224	176	400
66-75	103	99	202
+75	60	82	142
GUZTIRA	812	743	1.555

	1995	1996	1997	1998	1999	Guztira
Jaiotzak	7	7	12	11	17	54
Inmigrazioak	19	39	18	13	47	136
Heriotzak	17	23	15	21	17	93
Emigrazioak	29	55	29	18	43	174
Ezkontzak	4	1	5	7	9	26
Biztanelak	1.614	1.582	1.568	1.553	1.557	

Herrirako proiektu berriak

Estreinatuta berri dugun urte honetarako Udalak zenbait proiektu aurkeztu ditu Goimenen. Hona hemen proiektuon zerrenda eta bakoitzari dagokion aurrekontuen berri.

- Hormigoitzeko falta diren bideak. Aurrekontua 32.277.604. Egitasmo honetan sartzen dira Aigualdetxiki, Lizarrusti, Armuño, Iturbe, Bordagaztelu, Bordagazteluberri, Aldakio eta Barandiaranberri baserrietara doazen bideak. Guztira 3.195 metro. Josu Aldasororen ikuilura doan bidea hormigoitzea. Aurrekontua: 3.438.820 pezeta.
- Goimenera bidalitako beste egitasmo bat baserri bideetako urbideei dagokiena da. Guztira 13.782 metro.
- Aiako auzo elkarteari dagokion aurrekontua ere aurkeztu du Udalak, 8.004.000 pezeta.
- Azkenik, Olatza, Iturtxo, Urrutsumendi eta Amundarain bideetako luizi-eskoileren proiektua ere aurkeztua izan da Goimenen.

LABURREAN

- Urteroko lege, Gabon egunean goiz eta arratsalde ibili ziren **kantariak eskean**. Joxemiel Barandiaran eskolako haur eta gurasoak goizez eta Gestoretakoak arratsalde. Azken hauek Urtezahar egunez ere ibili ziren presoan aldeko eskean koplari. Bi egunotan 671.911 pezeta bildu zituzten.
- Abenduaren 31n ospatu zen baita ere Batera plataformak deitutako **kontzentrazioa**. 200en bat lagun bildu ziren plazan.
- Baita ere aipatzekoa da **Meltxor, Gaxpar eta Baltasar** erregeek egin ziguten bixita. Hauek ere modernotzen itxuraz eta, aurtengoan tratore gainean iritsi zaizkigu.
- **Joxemiel zenaren urtebetetze eguna**, abenduaren 31.a, aukeratu zuten Jexux eta Jon Aizpuruak, Barandiarani buruz idatzi berri duten liburua Saran aurkezteko. Hogeiren bat hieritarrez inguraturik, Pilar buru zela, azaldu zituen Jexuxek liburuaren nondik norakoak Joxemielek hainbat ordu eman zituen egongelan. Han izan zen baita ere, liburu argitaratu duen argitaletxearen buru den Xabier Mendiguren Elizegi, idazle beasaindarra.
- Abenduaren 20tik 31ra erakusgai izan ziren Udaletxeko ganbaran, **argazki lehiaketan** parte hartu zuten 44 partaideen argazkiak. Etxeetan jaso ditugu aukeratuak izan ziren lehen hiru argazkien postaleak. Hala nola, lehen saria irabazi zuen Jexux Etxeberriaren "San Gregorioko eliza"; Ander Gorostizuren "Herribidea", bigarren saria jaso zuena eta Joxe Begiristainen "San Martingo eliza", hirugarren sariaren irabazlea. Eguberri egunean egin zen sari banaketan jaso zituzten 60.000, 25.000 eta 15.000 pezetako sariak aipatu hiru sailkatuok.
- **Postetxearen** bulego berria Zelaieta etxe berrien azpian dago. Hara zuzendu beharko gara hemendik aurrera, beraz.

Baque torneoa Aratzentzat

Pasa den urteko abenduaren 19an Irungo pilotalekuan jokatu zen Baque txapelketako finala Aratz Mendizabal zaldibitarrek irabazi zuen. Kanpoan giro tristea bazegoen ere, partidu atsegin izan zen honakoa. Aratzek arerio bezala Izagirre berrobiarra zuen eta partidu guztian erakutsitako nagusitasuna dela medio 12 tantotan utzi zuen aurkaria. Aratz gustora zegoen, gainezka. Kontutan hartu

behar da iaz txapelketa bera irabazi zuela kadete mailan eta aurten jubentzetan berretsi du bere nagusitasuna. Animo eta segi aurrera!

Bestalde, eta pilota mundutik mugitu gabe Aratzek berak eta Ibon Gurrutxagak osatzen duten bikoteak Klubaren arteko finala jokatzeko txartela lortu zuten abenduaren 5an Zaldibiako Resti pi-



tu zen bikote zaldibitarra eta igande honetan jokatu dute finala Añorgako bikote baten aurka. Lerro hauek idazterakoan oraindik ezin izan dugu jakin finala jokatu den lekua eta ordua, beraz, herri mailan kartel bidez zehaztuko da falta den informazioa. Bar-katu eragozpenak!

Iñaki Gurrutxaga
Saroi Jauregi

lotalekuan jokaturiko partiduan. Finalerdiko bigarren partidu honetan erraz nagusi-

Alkateen gose greba

Euskal presoek eskubideak errespetatu daitezkeen eta prozesu honetan aktiboki parte hartzeko eskatuz Euskal Herriarrok taldeko 25 alkatek gose grebari ekin zioten pasa den astelehenean, hilaren 10ean, Altsasuko udaletxean. Horien artean Zaldibiko alkatea den Joxe Joakin Zubeldia "Zarra" aurkitzen da herriaren ordezkari gisa. Gose greba hau bihar, larunbata, amaituko da eta honezkero berandu xamar bada ere animoak bidali nahi genizkioke lerro hauen bitartez herritarren izenean.

Euskara ikastaroa

"Euskaraz leitu eta eskribitzeko, 50 orduko ikastaroa" lelopean, Zaldibiako udaleko Kultura batzordeak UEMAko kanpainaren barnean eta AEKren laguntzarekin alfabetatze ikastaroak antolatzeke asmoa du. Ikastaroa hau gehienbat euskaraz idazteko edota irakurtzerako garaian zailtasunak dituzten pertsonen zuzendua dago, baina guztiz irekiak dira. Taldeak osatuko balira ikastaro bat larunbat goizean izango litzateke, aurreko ikastaroko oharrean azaldu zen moduan, eta bestea asteazken zehar. Ikastaro hauek urtarilaren azken astean hasiko lirateke, beraz, animatuz gero eman zuen izena Kultur Etxean urtarilaren 17 a baino lehen.



Baraualdi parte hartzailea

Oraindik Oinarri demokratikoen aldeko herri batzarrak balorazioa zehatzik azaldu ez badu ere, balorazio oso positiboa egin da abenduaren 27an hasi eta abenduaren 31 bitarte herriaren burutu zen 24 orduko baraualdi txandakatuaren inguruan. Guztira 130 pertsona inguruk parte hartu zuten baraualdi honetan eta lau txandetan, bisitariek gain, adin guztietako jendea batera ikustea lortu zen, guztiak ere Oinarri demokratikoak sustraitzeko garaia dela aldarrikatuz.

EROSKI

KAFETEGIA

gosari - merienda
eguneroko menua

☎ 943 88 27 93

ORDIZIA

JAUREGI

TOLDOAK s/l

Tfnok.: 943 88 02 43

943 88 01 33

BEASAIN



EGUZKI
INPRIMATEGIA

Nafarroa
Etorbidea, 9

☎ 943 88 94 82

BEASAIN

EAJ, EA eta EHk udal akordioa sinatu dute

1999-2003 legeintzaldirako udal akordioa sinatu zuten abenduaren 18an, EAJ, EA eta EH alderdiek. Poza azaldu zuten hiru alderdiek elkarlan honen aurrean. Lau hilabeteen bakoitzaren programak aztertu eta kontrastatu ondoren, Jon Jauregi alkateak adierazi zuenez, "justuagoo, solidarioagoo eta noski, euskaldunagoo" da akordi berri hau.

"Bere historia luzean zehar beste behin ere, Euskal Herria une historiko-politiko erabakior baten aurrean dago. Etengabeko elkarriketan oinarriturik eta beti euskaldunen nahia errespetatuz, justizia eta askatasunezko etorkizun hobeago bat ahal-

bideratuko dela uste dugu. Aurrerantzean izango gara una honetan egiteko gai izaten garenaren arabera izango da neurri handi batean. Oinarri honetatik abiatuta eta lehia antzuak gaindituz, guztiontzat etorkizun justuago baterako ilusio berriak sortzeko dagoen beharraz jabeturik, 1999ko ekaineko hauteskundeen ondoren, Beasaingo EAJ/EA eta EH lanean hasi ginen". Alderdi abertzaleen esanetan, banatzen dituzten diferentziak baloratu eta Beasaingo gizartearen aniztasun soziala, kulturala eta politikoa aintortuz, merezi izan du herri-tarren elkarbizitza indartzeko akordio hau gauzatzea.



Jose Luis Bastida (EA), Josi Insausti (EA), Jon Jauregi (EAJ), Andoni Antxia (EH), Bixente Apalategi (EH) eta Jose Luis Arrese (EAJ).

Horretarako, Udaleko eztabaida eta erabaki guneen izaera demokratikoa eta partehartzailea indartu behar duela uste dute, "batzorde informatiboak ekarpenetara irekiz eta Udalbatzetan ere edozein gai eztabaidatzen ari denean interesa duen edonori esku hartzeko aukera emanez".

Gobernazio batzordea honela banatu dute:

Zerbitzuak eta landa in-

guruak: Jon Berbel (EAJ-EA); **hazienda** Jose Antonio Guirado (EAJ-EA); **Gizarte-Ongizatea** Ana Asla (EAJ-EA); **Kultura** Arantxa Aseginolaza (EAJ-EA); **Hirigintza** Patxi Plazaola (EAJ-EA); **Gaztedia eta Kirola** Josi Insausti (EAJ-EA); **Eus-kara** Arrate Izagirre (EH); eta urtarileko udal-batzarrean sortuko den **Ingurumen** batzordea Andoni Antxiaren (EH) esku egongo da.



Antzizar kiroldegia: kirola denon eskura

2000. efektua gaintutuz dator aurtien ere Antzizar kiroldegia eskaintza bete-betearekin. Kirola guztion eskura jartzea du helburu Kirol erakundeak. Bi txartel mota daude: 'Plus' eta 'B' (igerilekurako txartela). Familiako txartela ateraz gero, merkeagoa ateratzen dira bai bata, zein bestea. 18 eta 25 urte bitarteko gazteek, Gazte Txartelaren bidez, % 50eko beherapena izango dute. Arazo ekonomikoak dituztenek ere, Udaleko Ongizate sailarekin harremanetan jarrita, merkeagoa izango dute kiroldegirako sarrera.

Familia txartelari dagokionez, aurtien bada nobedade bat: izatezko bikoteek familiako

txartela ateratzeko aukera izango dute. Eskubide ber-berak izango dituzte.

Ohiko instalakuntza eta zerbitzuez gain, 14 ikastaro daude aukeran; jogarena da aurtengo berrikuntza.

Azkenik, 2000. urterako Udal Kirol Erakundeak badu inbertsio handi bat egiteko asmoa: Loinatz futbol-zelaian belar artifiziala jarriko dute.



Gurutze Gorriak ambulanzia berria

Abenduan 2. ambulanzia aurkeztu zuen Goierriko Gurutze Gorriak, bigarren hau goierritarrei esker erositakoa. Gurutze Gorriaren arduradunek jakinarazi zuten, Goierriko biztanleek emandako laguntzari esker erosi ahal izan dute ambulanzia, baina, batez ere Beasaingo Udalak eman du laguntzarik handiena, beste Udal batzuek lagundu badute ere.

Udal ikastaroak

Altzarien zaharberritzea eta argazkigintza ikastaroak hasi dira aste honetan. Lehenengoan 20 lagunek eman dute izena, 30 orduko ikastaroa izango da eta asteazkenero 18:00etatik 20:30era arituko dira Txanbolinpe gainean. Irakaslea Lurdes Ulazia 'Amalur' taldekoa. Argazkigintzan, 12 lagun hasi dira, 12 ordu izango dituzte, astearte eta ostegunetan 19:45-etik 21:15era, kultur etxean. Irakaslea, Joxe Mari Telleria (Fotoetxe). Udalak, asistentziaren arabera, %25ean subentzionatuko ditu ikastaroak.

Udal Aldizkaria

Herritarren kezka handienetako bat udaletxean gertatzen denaren berririk ez izatea dela eta, kultura batzordeak proposatuta abenduaren 16ko plenoan onartu zen udal adizkaritxoak kaleratzen hastea. Bertan, batzorde eta plenoetako aktetan jasotako informazioa izango da oinarri. Aldizkaria 2-3 hiru hilabeteko buzoneatuko da eta 8 orrialde izango ditu.

San Sebastian urtarilaren 23an

Eguna 20an bada ere, hurrengo jaien ospatuko da San Sebastiango ermitan santuaren eguna. 12:00etan Kriseilu txistulari taldeko zaharrek 12 piezaz osatutako kontzertua emango dute. Ondoren meza eta udalaren laguntzaz eskainitako hamaiketako. Aipatu, elizako batzordearen iniziatibaz kanaloiak jarri berri zaizkiola buelta osoan ermittari.

Bola

Hasia da aurtengo bola denboraldia. Lehenengo proban,

Bi erretaula monumentu kultural

Eusko Jaurlaritzako kultura sailak monumentu kultural modura izendatu berri dituen 68 erretauletatik 23 Gipuzkoakoak dira eta horietatik bi Segurakoak, parrokikoa eta komentukoa hain zuzen.

Kultura-ondasun kalifikatuak, legeak jasotako babesik altuenari esker, zaharberritze edota zainketa lanak erregulatuko dizkiete, hala izendatu dituzten erretauleri.


Katalogazio lana EHUko Pedro Luis

Etcheberriak koordinatutako lan taldeak burutu du. Hauen esanetan, erretaulak duten deboziozko balioez gain, lehen mailako dokumentu historikoak eta altxor artistikoak dira.

Gipuzkoan, Oñatikoarekin, eta Zumaia-koarekin batera azpimarragarriena Segurako parrokikoa jotzen dute adituek. XVIII. men-



Komentuko erretaula



Parrokiko erretaula

dekoa, rokoko estilokoa eta penintsula mailan ere aipagarrienetakoa. Miguel Irazustabarrenak egin zuen erretaula eta Luis Salvador Carmonak 42 irudiak. 1747an amaitu eta 1749an urreztatu zuten. Komentukoari dagokionez, hau ere rokoko estilokoa, 1742-45 bitartean amaitua, erretaula Fray Jacinto de la Sierrak eta irudiak Sierratarren tailerrean egin zituzten.

Gipuzkoako taldekakoan, 2. geratu da Antonio Agirrek, Xepiño Agirrek, Imanol Agirrek, Martxeliño Agirrek, Jexux Mari Intxaustik eta Jokan Izagirrek osatutako taldea.

Pelota

Gipuzkoako klubaren artekoan, Beasaingo taldean ari den Garikoitz Oiarbide, kadeteen mailako finalera iritsia da. Iñigo Irueta eta Asier Irastabarrenarekin tartekatuz aritu da jokatzeko Garikoitz. Txapela añaoraren aurka jokatu dute. Hau idazterakotan finalaren eguna eta lekua zehaztu gabe zeuden.

Kirol eskolarra

Asteburu honetan igeriketa, saskibaloia, atletismoa, sokatira, krosa eta mendi irteera izango dituzte. Etxean, saskibaloian, neska alebinez Murumendikoen aurka joka-

tuko dute, zapatuan goizeko 11etan, Baratzeko Pelotaleku ondoan. Mendi irteera: Mandubitik Segurara oinez. Irteera goizeko 8:30ean plazaatik. Autobusa jarriko da.

Futbola

Asteburuko emaitzak: Preferentea: Segura 2-3 Urola. **Jubenilak:** Segura 1-1 Sporting. **Kadeteak:** Euskalduna 4-0 Aizkorri. **Infantilak:** Aretxabaleta 1-4 Aizkorri.

Asteburuan etxean: Preferentea. Segura-Mutriku, zapatuan, 16:00etan.

Labur labur

● **Segura Udalbiltzako partaide** izatea erabaki zen aho batez abenduaren 29ko ez ohiko udal bilkuran.

● **Kultur etxea zabaldu.** Herritarrei zabaldu eta errazteko asmoz, udalak herriko edozein elkarte antolatutako bertako giltza utziko dio, au-

rrer arduraduna izendatuz.

● **San Joan jaiak.** Festa egunak eta musika taldeak zehazten hasteko lehenengo bilera gaur, urtarrilak 14, iluntzeko 7etan udaletxean. Festa batzordea sortu nahi da. Talde zein interesatu guztiak gonbidaturik daude.

● **Preso eta errefuxiatuen aldeko taldea.** Diru bilketa hasiko da herrian, abokatu, mediku asistentzi, bidaiak... sortzen dituzten gastuei aurre egiteko.

● **Oinarri demokratikoen alde.** Konzentrazioa urtarilaren 21ean iluntzeko 7etan Madalenako errotondian.

● **Segurako alkatea,** Luli Telleria, EHko alkate guztiekin batera, euskal presoen euskalerriratzea eskatuz, gaur amaituko duten astebe- teko gose greban izan da Altsasun.

Joseba Telleria



Idiazabal

Udalbiltzako partaide

Idiazabalgo Udala Udalbiltza erakundearen sartuko da larunbat honetan, urtarrilak 15. Horretarako, pleno berezia egingo da hilaren 15ean eguerdiko leian herriko plazan. Idiazabalgo Eusko Alkartasuna, Euskal Herriarrak eta Eusko Alderdi Jeltzaleak, jai ikutua eman nahi diote ekitaldi politiko horri, eta herritar guztiei gonbitea egin die pleno berezian parte hartu dezaten.

Suziriek hasiko da ez ohiko bilkura. Bertsolarien saioa etorriko da ondoren. Ekitaldi politikoa hasteko Udalbiltzako partaide bihurtzeko arrazoiak biltzen dituen txostena banatu, irakurri eta ondoren zinegotziek bozketa egingo dute. Ondoren aureskua izango da eta bertsolariek bukatuko dute ekitaldia. Plazan bildutako guztien artean gazta, ogia eta ardoa banatuko dira.

Udalbiltza Euskal Herri osoko Udal hautetsiek osatutako erakundea da. Idiazabalgo

balgo ordezkariak duela urtebete Iruñean egindako sorrera ekitaldian eta irailean Bilbon egindako bileran izan ziren. Ekitaldi horietan ezarritako oinarriak onartuko dira larunbateko plenoan, honenbestez eta onartuko den txostena jasotzen duenez Idiazabal, "udal oinarria duen lehen euskal erakunde nazionala" partaide bihurtuko da.

Presoen eskubideen alde

Idiazabalgo hiru talde politikoek eta Jarrai gazte erakundeak bat egin dute presoen eskubideen aldarrikapenean. Eskubide horiek bete daitezela eskatzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Guztiek amankomunean 'Euskal presoen eskubideen alde' lema izango dute, goiburu hori biltzen duen pankarta dago jarrita hain zuzen ere udaltzeko balkoian.

Egindako ekitaldien artean, urtezahar arratseko konzentrazioa, Txomenanen kar-



tzelan jarritako olentzero eta Erregeen kabalgatan baserritar jantzita eta aurpegiak txuriz estalita presoen eskubideak aldarrikatuz atera zen taldea. Aurrerantzean egitekoak: Goierriko presoei Idiazabalgo irudiak dituzten postalak bidaltzea, Iñauti ondoko

errotondan konzentrazioa egitea eta bilkura gehiago deitzea.

Horretaz gain, Batera presoen eskubideen aldeko plataforma egiten ari den sindatura bilketa ere ari dira burutzen Idiazabalen.

Xabier Urteaga

Sanblasak: pregoi lehiaketa

Sanblas jaiei hasiera ematen dien pregoia egiteko lehiaketa antolatu du Festa Batzordeak. Edozein herritarrek hartu dezake parte lehiaketan. Urtarrilaren 25a baino lehen aurkeztu beharko du udaletxean pregoiaren gidoia eta hura antzetzuko duen pertsonaren edo taldearen izena. Aukeratutakoak 25.000 pezetako saria jasoko du.

Tanborradako entseiuak ere martxan daude. Haurrek urtarileko asteazken guztietan izango dute entseiuak, arratsaldeko 6.30etan Guraso Elkarteko aretoan. Helduek, hilaren 19an eta 26an egingo dituzte entseiuak, arratsaldeko 8.30etan.

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



OSTEOPATIA

Jose Gisasola Dr. Koleg. Zkia. 3998

BIZKARREKO MINAREN
ESKUZKO TRATAMENDUA

R.P.S. 213/97

- LUNBAGO, ZIATIKA, HERNIA DISKAL
- ZERBIKALGIA, ZEFALEA, MIGRAINA, ARTROSIS.

Eskatu ordura: ☎ 629 45 20 53 - 943 88 92 22
Andra Mari, 13 behea ezk. - BEASAIN

ZUHAIZKI

S. A. L.

ZURGINDEGIA



× LEIHOAK, ATE-
AK eta abar

× ESKAILERAK
NEURRIRA



Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55



KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLERETAN

San Inazio, 5 ☎ 943 88 35 81
BEASAIN



JANARIAK

GAZTAK
BABARRUNAK
ARRRAUTZAK



☎ 943 80 17 58
☎ 619 40 95 66
Atiber etxea
MUTILOA

Peri berezi arrakastatsua

Jende piloa inguratzea lortu zuen iazko azken peri bereziak. Zer ikusia eta erositia izan zuten denek ere, izan ere Udala saiatu zen herriko txoko guztiak nolabait alaitu eta girotzen. Trikitilariak, dultzaineroak, zanpantzarrak... goiz osoan zehar jo eta su aritu ziren. Garagartza Plazan ardi eta ahari erakusketaz gain fuitu lehor, errezil sagar eta gainontzeko fruituen lehiaketarako aurkeztutako postuak ikus zitezkeen. Urdaneta Kanean, peri berezietan ohiko bihurtu den bezala, bertako produktuak eskaintzen zituzten postu mordoak. Estali gabeko pilotalekuan, azkenean ostrukek huts egin bazuten ere, hor izan ziren orein, bigantxa eta pottokak. Pilotaleku barruan oilo, oilar, kapoi, indioilar, oka eta aha-

teen lehiaketa. Hauek gain, asteazkeneko etortzen direnak ere hor izan ziren, hauek ere aparteko lehiaketa izan zutelarik.

Aurretik aipatutako horiek gutxi balira ezin aipatu gabe utzi Euskadiko I Odolki Txapelketa. 46 harakinen odolkiak aritu ziren lehian eta azkenik Beasaingo Iñaki Zubeldiak aurkeztutakoa aukeratu zuten onena bezala. Baina ezin aipatu gabe utzi Ordizia-ko harakinek erakutsitako maila ona, azken aukeraketarako 3ren odolkiak izan baitziren aukeratuak, Niko Lasa, Jose Antonio Mujika eta Juanjo Aranzegiren odolkiak hain zuzen.

Ezin ukatu, beraz, Udalak peri bereziak antolatzeke egindako apostua arrakastatsua irtetzen ari dela.

Jose Antonio Blanco nagusi

Bi ordiziar nagusitu ziren urte zahar egunean jokaturako ohiko San Silbestre proba herrikoian. Aurretik gaztetxoek txanda izan zen eta kategori desberdinetako neska-mutikoez euren dohaiak erakutsi ondoren helduen txanda. 232 izan ziren irten zirenak eta hasieratik proba irabazi nahi zuten korrikalariak buruan jarri eta aurrera. Helmugan Jose Antonio Blanco 'Sobi' nagusitu zitzaion Jose Javier Cuadradori. Emakumezkoetan ere ordiziar bat izan zen nagusi, Maider Gaztañaga hain zuzen ere.

Pronostikoak betez

Jorge Sanchezek bizkar erako 100 metroetan egindako markarekin Igeriketa Sari nagusia eramatea lortu zuen gizonezkoen mailan. Amaierarte irabazlea nor izango zen jakiterik izan ez bazen ere, pronostikoak bete eta aipatu igerilariak lortutako puntuak nahikoak izan ziren. Iazko txapelduna Sabir Muhammad etortzekoa zen arren azken momentuan ezin izan zuen azaldu eta gauzak erabat erraztu zizkion Jorge Sanchezzi. Emakumezkoetan Junkal Irigoien nagusitu zen.

30 milioi

Kopuru hori izan zen Gabonetako loterian Crehuet Estankoak saldutako zenbaki batek Ordizian utzi zuena. 11.740 zenbakia izan zen hauek saldutako bat eta aipatu zozketan laugarren sari bezala irten zena. Zenbaki horretako dezimo bat zuenak 3 milioi kobratuko zituen.

Aitor Calvillo

Oilarrak desagertuta

Beti Alai pilotalekuan oilar, oilo, kapoi eta indioilarren erakusketa izan zen. Albiste bitxia gertatu zen bertan, Eugenio Aranak erakusketara aurkeztutako oilarrekin. Adunako baserritar bikote batek (beraiek horrela onartu zuten), inoren baimenik gabe, Eugenio Aranaren oilarrak Bidaniako jatetxe bateko nagusiari saldu zizkion. Aranatarrek Ertzainen aurrean salaketa jarri zuten. Adunako baserritar horiek 5.000 pezeta eman nahi zizkien trukean. Aranatarrek Ordiziako alkatearengana, Alejandra Iturriozena jo, baina Udalak erantzukizunik ez zuela adierazi zien.

Bidaniara joan zen aita abenduaren 31n, beraien oilarrei buruz zer zen jakitera. Hauxe izan zen erantzuna: *"oraintxe ari dira preparatzen nahi baduzu kazuelan hartu eta eraman"*

Eugenio Aranak adierazi digunez, bere amak hazten ditu oilarrak, mimo handiz, *"umeak bezalaxe"*. Sentimentuzko baliio handia zuten oilar hauek familiarentzat. 4 urte zituzten eta oso ederrak omen zeuden.

Sarituak

Astero plazara etortzen direnen arteko sariketa: 1.saria: Baliarraingo Edurne Jaurigientzat. **Fruitu lehiaketa:** irabazlea Hernaniko Manu Iradi. **Euskal Herriko**

errezil-sagarren lehiaketa: irabazlea Hondarribiko Rafael Amunarriz. **Fruitu lehiaketan, lote onena:** Gabiriako Anttoni Murgiondo. **Fruitu lehorren lehiaketa:** Ezkio-Itsasoko Mikeli Lopetegirentzat izan zen lehenengo saria.



Postal eta idazlan lehiaketa

Goiztiri AEK-k antolatutako postal eta idazlan lehiaketako emaitzak honakoak izan ziren: postal lehiaketari dagokionez Urdaneta-Oianguren ikastetxean 6. mailako Nekane Moralesek eraman zuen lehen saria eta bigarrena, berriz, DBH1eko Naroa Rodriguezek. Jakintza Ikastolan lehen saria 6. mailako Ane Azurmendirentzat izan zen eta bigarrena 5. mailako Estibalitz San Martinrentzat. Idazlan lehiaketari dagokionez aipatu Urdaneta-Oiangureni zegozkion sariak hutsik geratu direla eta Jakintza Ikastolako saridunak ondokoak izan zirela: lehen saria Amaia Azurmendiren "irteera arriskutsua" lanarentzat izan zen, bigarrena Maria Valdiviesoren "egunkari magikoa"rentzat eta hirugarrena Maite Leturiaren "James Wilsonen hilketak" lanarentzat. Sariak Lazkaoko Gerriko Liburudendan gastaizeko tikeak ziren. Argazkian saridunak euren sariak AEKko ordezkarien eskutik jaso zituztenean.

Paula Garaialde ordiziar pintorea: "Errealitatea ez zait gehiegi gustatzen eta nire erara birmoldatzen dut ikusten dudana"

Paula Garaialde pintore ordiziarrek Beasaingo Usurbe Antzokiko Erakusketa aretoan du erakusgai bere lanak, urtarilaren 16ra bitartean. Indartsu hasi du urtea, Beasaingo erakusketari esker bere lana ezagutzera emateaz gain, salmentarako aukera ona izan baitu. Abstraktuak, koloretsuak dira bere lanak, barne sentipenen isladak.

Leioan Arte Ederren ikasketak bukatzeaz ditu 21 urteko ordiziarrek eta dagoeneko hasi da bere lanak han eta hemen erakusten. Beasaingo Usurbe Antzokiko erakusketaretoan daude ikusgai urtarilaren 16ra arte Paularen lanak. Hurrengo erakusketa Gasteizen egitekoa da.

Pintura abstraktua egiten du Paula Garaialdek, batzuk espresionistak. Oso koloristak dira bere lanak, kolore beroak erabiltzen ditu.

Momentu zehatz bateko adierazpenak, bizipenak, sentimenduak... isladatzen ditu Paulak bere koadroetan. "Oso ezkorra edo pesimista naiz eta kolorea erabiltzen dut nire pesimismo hori izkutatzeke. Normalean gogo-



rrak dira, ez dira oso gauza politak kontatzen", dio ordiziarrek. Aitortu digunez, "oso gutxitan pentsatzen dut koadroak aurretik, batbateko sentimentuak izaten dira edo duela gutxi gertatutako momentu bat".

Normalean gauean margotzen du. "Nire ustez gauean dauzkat momenturik onenak. Egun baten bukaera eta hurrengoaren hasiera biltzen dira gauean. Nire lanaren oinarria gehienbat iraganean dago, baina beti geroari begiratuta, geroke beldurra-ri".

Pintura abstraktua jendearengana hurbilaraztea du helburu Paulak. "Nire lanak ulergaitzak dira jendearentzat, abstraktua ez baitu ulertzen jendeak. Beasainen horregatik egin dut erakusketa hau, jendeak abstraktua

ikas dezan. Hemen errealis- moan geldituta gaude. Errealismoa ez zait gustatzen, ikusten dudana ez baitzait gehiegi gustatzen. Nire erara birmoldatzen dut ikusten dudana".

Bereziki Beasaingo erakusketarako, bizpahiru lan izan ezik, margotu ditu koadroak Paulak. Hiru zatitan banatu du erakusketa: olio-pinturak, gehienak espraiez egindakoak eta akuarelazko koadro txiki batzuk.

Aukera falta

Nahiko kritiko azaltzen da Paula Garaialde inguruko herrien kultur politikarekiko. "Ez da asko apreziatzen egindako lana. Beasainen zehazki, hobeto funtzionatzen du Udalak. Ordiziako Barrenako erakusketa oso elitista da niretzat. Egia da

artista famatuak erakartzen duela jendea baina nik uste dut zentzu hori aldatzea gure baitan dagoela. Zinera edozein pelikula ikustera joaten garen bezala, erakusketa aretora ere berdin joan beharko genuke. Gustatzea edo ez gustatzea gutxienezkoa da. Bista ohitzea eta sentipen batekin ateratzea nahikoa da. Hori ez da jendearen kontua bakarrik, lagundu egin behar da". Horretarako artista berriei beraien lanak erakusteko aukera eman behar zaiela uste du ordiziarrek, "gure lana jendeari erakustea da eta ez etxean edukitzea. Hemengo udalei gure lanak erakusketa aukera ematen eskatzen diet".

Komunikazioa helburu

Leioako Arte Ederretan ikusentzunezkoaren adarrean dabil Paula. Etorkizuna zaila ikusten du, "abokatuak bezala asko gara, hala ere mugitzea derrigorrezkoa da. Kanpora irtenez gero, beste heziketa bat dago, ulertzeko beste era bat. Gogoa eduki behar da, eta mugitu".

Lan eta lan jarraitzea du helburu. Zinean, publizitatean edo pinturan. "Non eta nola ez dakit, baina era batera edo bestera komunikazioa lortu nahi dut arte mailan", argitu du Paulak.



XENKEGI
ETXE-AROKINTZA
Diseinuak neurrira

Erakusketako Tel-faxa: 943 889113

Tel mugik.: 619 487056

Senpere Merkatalgunea, 25

Sukaldeak
Ateak
Zoruak
Armairuak

BEASAIN



ZINEA



'La sombra del Emperador'

Zhou Wiaawen
(Txina-EEBB, 1996)

Ying Zheng, Txinako lehen enperadorea eta Gao Jianli, bere gorteko musikagilea, lagun minak dira txikitatik, Gaoren ama bi haurren inude izan baitzen. Orain, gizon delarik, Yueyang, enperadorearen alabarenganako miresmena ere adierazten dute biok.

Gao, Yueyangen musika irakasle bihurtu delarik, erabat maiteminduta dago berearekin. Baina Ying, enperadoreak, bere alaba general buruaren semearekin ezkondu nahi du, botere politikoa sendotzeko asmoz. Hau da, European bederen, aski ezezaguna den Zhou Wiaowen zuzendari txinatarraren zortzigarren filma, zalantzarik gabe, guztien artean garrantzitsuena, esanguratsua eta burutzen zailena.

GOIENIZ:

Urtarrilak 27, 'La sombra del Emperador', 21:00etan, Usurbe Antzokian.

ORDIZIA:

'El mundo nunca es suficiente 007'.

Ostirala 14: 22:15
Larunbata 15: 19:30,
22:15
Igandea 16: 16:45,
19:30,
22:15
Astelehena 17: 19:30

Goieniz zine klubaren ziklo berria martxan

Goieniz zine klub taldeak urtarrilaren 13an jarri zuen martxan apirilera bitarteko zine zikloa. Zortzi emanaldi prestatu dituzte. Ohi bezala, Beasaingo Usurbe Antzokian izango dira, ostegunetan, 21:00etan. Sarrerak: 500 pezeta. Zortzi emanaldietarako abonua: 2.000 pezeta. Egutegia:

- **Urtarrilak 27**: 'La sombra del emperador' (Z. Wiaowen).
- **Otsailak 10**: 'Cooki'es fortune' (Robert Altman) eta Francisco Plazaren 'Abuelitos' film laburra.
- **Otsailak 24**: 'Estacion central de Brasil' (Walter Salles).
- **Martxoak 2**: 'Cuento de otoño' (Eric Rohmer) eta Koldo Almandozen 'Adar bakar' film laburra.
- **Martxoak 16**: 'Divorcing Jack' (David Caffrey).
- **Martxoak 30**: 'Sonatine' (Takeshi Kitano) eta Igor Legarreta eta Emilio Perezen 'El Trabajo' film laburra.
- **Apirilak 13**: 'Cube' (Vicenzo Natali) eta Asier Altuna eta Telmo Esnalen '40 ezetz' film laburra.

Goienizek 5 urte bete ditu eta urteurren hori ospatzeko, Goienizen eskaintako azken bost urteetako pelikulez osatutako egutegia salgai duzue 300 pezetan.

bertsoak

GARIN:

Urtarrilak 22, bertso-bazkaria 14:00etan, Aitor Sarriegi eta Ekaitz Goikoetxearen eskutik.

ZEGAMA:

Urtarrilak 22, bertso-jaialdia. Ikus Zegamako kronika (16. orria).

ikastaroak

BEASAIN:

Urtarrilak 18, hariarekin egindako lanen ikastaroa, Asmubek antolatuta. Astelehen eta ostiraletan arratsaldeko 5etatik 6etara izango da eta beste egunetan 4etatik 6etara.

CAFÉ BAR
ZINEMA
AHOLKATZEN
DIZUE...

- ✗ El pequeño ladrón
- ✗ Tres estaciones
- ✗ La sombra del emperador
- ✗ Cookie's fortune
- ✗ El viento nos llevara
- ✗ Hoy empieza todo
- ✗ Rosseta

Iturrioz, 2 BEASAIN

IKASTEK AKADEMIA
KALITATEA ETA PROFESIONALITASUNA

- ✓ Lehen eta bigarren hezkuntza
- ✓ Unibertsitate maila
- ✓ Kontabilitatea
- ✓ Marrazketa teknikoak
- ✓ Larunbatetan klaseak

Hezkuntzako profesionalak goierritarren zerbitzuan

☎ 943 16 01 20 Joan Iturrilalde, 5 BEASAIN

Siboney
ESTETIKA ZENTRUA
☎ 943 88 15 50
Senpere Merkatal Gunea
BEASAIN

TRATAMENDU MEDIKOAK

- Aurpegiko orbanak edo mantxak
- Ezpainetako zimurrak

AURPEGIKO TRATAMENDUAK

MAKILAJE IRAUNKORREKO TEKNIKO ESPEZIALISTA

- Begiak
- Ezpainak
- Bekainak

DEPILAZIOA LASERRAREKIN



60-90. urteetako Goierriko musika taldeen argazki erakusketa Zinema tabernan

Beasaingo Zinema tabernan, urtarrilaren bukaerara arte, ikusgai dago 1960 eta 90 urte bitartean Goierri izandako musika taldeen erakusketa. Argazki erakusketa da eta piskanaka-piskanaka osatzen ari dira.

erakusketak

BEASAIN:

Urtarrilaren 16ra arte, Paula Garaialderen pintura erakusketa, Usurbe Antzokian.

Urtarrilaren bukaera arte, 'No están todos los que son' izeneko 60. eta 90 hamarkada bitarteko Goierriko musika taldeen argazki erakusketa, Zinema tabernan (J.M. Iturrioz kaleko 2. zenbakian).

Urtarrilaren 21etik 30era, Jose martin Mendiaren pirograbatuak erakusketa, Usurbe Antzokian.

ORDIZIA:

Urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra arte, Patxi Epelderen pintura erakusketa, Barrenan.

mendi-irteerak

Beasaingo mendizaleak:

Urtarrilak 16, Erlora.

Urtarrilak 23, Beasain-Lazkaomendi-Lazkao-Beasain.

GOARDIAKO FARMAZIAK

Astegunetan: Urbizu (Kale Nagusia, 8 - Beasain). 943 88 02 32.

Urtarrilak 15-16: Urbizu (Kale Nagusia, 8 - Beasain). 943 88 02 32.

Urtarrilak 22-23: Atorrasagasti (Bustuntza auzoa - Ordizia) 943 88 29 34.

Garinen San Sebastian jaiak

Beasaingo Garin auzoan San Sebastian festak ospatuko dituzte urtarrilaren 22tik 23ra bitartean. Auzotarrek prestatutako egitaraua hauxe duzue:

Urtarrilak 22, larunbata:

13:00etan: Buelta-kanpiaiak eta suziriak, auzoko festen adierazgarri.

14:00etan: Herri bazkaria auzo elkartean. Ondoren Ekaitz Goikoetxea eta Aitor Sarriegi bertsolariak.

17:00etan: Mendi-bizikleta lasterketa herriko gaztetxoentzat.

19:00etan: Elizan, Alboka taldearen emanaldia. Sarrera dohainik.

22:00etan: Musika eta festa auzoko elkartean.

Urtarrilak 23, igandea:

10:30etan: goiz-eresia Beasaingo Udal Txistulariekin.

11:00etan: Meza Nagusia. 'Misa de Angelis' abestuko da.

12:00etan: Zaharrei omenaldia. Herriko zaharrena den Plazida Intxaustiri (103 urte) eta gainerako omenduei loreak, aureskua eta oroigarriak eskainiko zaizkie.

12:30ean: Beasaingo Ostadar dantza-taldearen saioa.

13:00etan: Pelota partiduak, gaztetxoek artean.

Eguerdian: Beasaingo Udal Txistularien saioa.

Arratsaldean: trikitilariak.

Unibertsitaterako orientazio-hitzaldiak

Beasaingo Txindoki-Alkartasuna Institutuak antolatutako, bere orientazio-programaren barnean, batxilergoko bigarren mailako gurasoentzako hitzaldiak izango dira gurasoentzako. Etorkizunean beren seme-alabek burutu beharko dituzten ikasketei buruz informazio argi eta zabala esakintzea eta erabakia hartzerakoan laguntzea da. Hitzaldiak irekiak dira, Goierriko guraso eta ikasleentzat.

● Urtarrilak 18, 'Bigarren Hezkuntza bukatzerakoan zer?' gaiari buruzko hitzaldia, Begoña Berroeta, Erreterriako PATEko orientatzailearen eskutik, Usurbe Antzokian, 19:00etan.

● Urtarrilak 19, 'EHUko ikasketak'. Hizlaria: Isaac Barrio Gipuzkoako Canpuseko HEZI-ICEkoa, Institutuko areto nagusian, 19:00etan.

● Urtarrilak 20, 'Mondragon Unibertsitateko ikasketak'. Hizlaria: Iñigo Ramirez de Okariz eta Javier Mendiluze, 19:00etan, Institutuko areto nagusian.

● Urtarrilak 25, 'Nafarroako Unibertsitateko ikasketak', Manuel Garcia Conderen eskutik, Institutuko areto nagusian, 18:00etan.

● Urtarrilak 26, Nafarroako Unibertsitateko ikasketak eta Deustuko Unibertsitateko ikasketei buruzko hitzaldia, Manuel Garcia Conde, Jose Antonio Rodriguez eta beste hiru irakasle gehiagoren eskutik, 19:00etan, Institutuko areto nagusian, 19:00etan.

Etxebizitzak

salgai

- ➔ Seguran etxe adosatua salgai. 153 m². Lorategia eta garagearekin. 943-881550.
- ➔ Etxea salgai Lazkaon. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, bi balkoi, aluminiozko leiho berriak, bergailua etxe guztian. 943-884096.
- ➔ Jatetxea, taberna eta bi pisu salgai, Altsasun. 4.000 m²ko lursailarekin. 948563512. Gaez.
- ➔ Etxebizitza salgai Beasainen: 2 logela, egongela, sukaldea, bainua, terraza eta trastalekua. 60 m². 656711266.

Garageak

errentan

- ➔ Garagea alokatzen da. 943885698.

salgai

- ➔ Garagea salgai Lazkaon, Ellosegi kalean. 23 m²-koa. 943-882813.
- ➔ Garagea salgai. Itxia. Beasaingo J.M. Iturrioz kalean. 943889028 (Jabier). Eguerdietan deitu.

Ibilgailuak

salgai

- ➔ Opel Kadett GT-a salgai. Gorria. Extrekin. Ongi zainduna, SS-AF. Gaez deitu. 943-161941. Joseba.
- ➔ Honda dominator motorra salgai. 650 c.c. Egoera onean. NA-AH matrikuladua. Asier. 943881791 - 608577287.
- ➔ Nissan Patrola salgai. SS-AD matrikuladuna. Egoera onean. 943 682052. Gaez deitu.
- ➔ Audi Coupe kotxea salgai. 95. urtekoa. 656741709.
- ➔ Opel Corsa GSI beltza salgai. 943881802.
- ➔ Suzuki Address modelo-ko scuter motorra salgai. Matrikulatua. Erabili gabea (zozketa batean egokitua). Prezio interesgarria. 943187162.
- ➔ Seat Malaga, 1.500 salgai. SS-Z. 125.000 pezeta. Egoera onean. Gaez deitu. 943160214.
- ➔ Suzuki DR50 motorra salgai. Egoera onean. 943180102.
- ➔ Kawasaki GPZ 400 motorra salgai. Egoera onean. 943731872 - 943731282.
- ➔ Nissan Trade 2000 furgoneta salgai. SS-AF. 943161941 - 689916999.
- ➔ Volkswagen Golf GTI 16 V, salgai. Extrekin. SS-AD. Asier. 943800384. Gaez deitu.

Animaliak

salgai

- ➔ Urte eta erdiko aharia salgai. 943885102.
- ➔ Boxer arrazako txakurkumeak salgai, pedegreearekin. 696057346.
- ➔ Euskal ponnyak salgai. 943160919.
- ➔ Seter ingeles txakurkumeak salgai. Desparasituak eta txertatuak. Pedegree onekoak. 943216684 - 670873227.
- ➔ Cocker hispaniel ingelasa eskaintzen da arraza hobetzeko, pedigree onekoa. 943886164.
- ➔ 2 artzain txakur opari. Hilabete ingurukoak. Harrak. Norberak txertatu beharko ditu. 943885792.

opari

Bestelakoak

salgai

- ➔ Tabernetarako egokia den hozkailua eta banaketan erabiltzeko tankea, 280 litrokoa, salgai. 943008023.
- ➔ Berogailuaren akumula-dorea salgai. Berria. Egoera onean. 943887146.
- ➔ Eskiak, makilak eta botak salgai. Oso ongi zainduak. Prezio interesgarria. Boten zenbakia: 44^{1/2}. 619749637.

- ➔ Olivetti idaz makina elektronikoa salgai. 943882278.

- ➔ Kawai markako pianoa salgai, egoera onean. 943884303.

- ➔ Sutarako egurra salgai. 943723504. Gauetan deitu.

- ➔ Hyundai autoentzat baliotutako 16"-ko llantak salgai. Oso merke. 943882907. Gaez deitu. Ibon.

- ➔ Egurra txikituta saltzen da, sukaldearako. Paga, haritza edo pinua. Etxetara eramaten da. 943882695 (bulego orduetan deitu).

- ➔ Pentium 100 ordenagailua salgai. Interneteko akzesorio guztiekin. 943885445. Gaez deitu.

- ➔ Esne tankea salgai: Manus CRFM. 250 litrokoa. Oso egoera onean. Artzaintzat egokia. 94680900 (mezua utzi). Iñaki.

- ➔ Cherny markako pianoa salgai. Egoera onean. 943882875.

Galdutako objektuak

- ➔ Urte Zahar egunean eskumuturreko edo pultsera bat galdu zen Ordizian. 943882986. Saritu egingo da.

Patxi Telleria

Olaberriako Santu Guztien eguneko gaztain erreak



1 963. urtean, Olaberrian, Santu Guztien egunean gaztaina erreak tarteko egin zen festaren kontakizuna egin digu Patxi Telleriak. 17 bertsotan kontatu du bertan bizitakoa. Bera soinu-jole lanean aritu zen. Apaizarekin izandakoak, dantzak, neska laguntzak... kontu ugari azaltzen dira bertan.

1.- Guk nai gaztaña erriak dirurik etzun erriak, lanerakore kupirarik ez gaztedi berriak. Nekaturikan gerriak, artu bear ziran neurriak, gaztañaz eta sagardozen kendu gose-egarriak.

2.- Aste buru bat osoan gaztaña biltzen basoan, gazte guztiak alkar arturik pozaren pausoan gaztañak jaki gozoan, erarie bear zan kasoan, 'Aranguren Txikiko' sagardo ederra basoan.

3.- Ekin goiz ta arratsalde, gaztañak bildu debalde, soñu jotzea juango nintzan neri egin galde, guztiok eginez talde, ikusirik ainbat alde, oso ederki pasatzen gendun da nik ezin alde.

4.- Naiz gaztain biltzen nekatu gaztei zeñek debekatu, txabalen jarri gatz botata ederki sekatu, bazekien nola jokatu, ori ezin zan ukatu, Santu Guztien egunez erre ta ordun bukatu.

5.- Azaroak bata zunen, Santu Guztien Egunen, milla beatzireun irurogeita irua gendunen, Parrokoa elizkizunen, Olaberrian zuzenen, denak otoizka zeru aundira Santuen izenen.

6.- Apaizak gogor elizan, gaurko garaia ez izan, gurasoengan errespetoa zabaldua baitzan, festa jarri naia plazan, mutillak asi nai dantzan, neskatzak ere pozik alkarri: "dantza gaiten, aizan!".

7.- Plazan dantzatzan asita, parrokoak ikusita, Parroko Jaun da Don Balentinek aguro bisita, gazte denak igesika, ni an soñua itxita, alare pozik sartu etzigunen iñori auzita.

8.- Gaztek une larrietan oso kezka aundietan, Parroko Jauna asikote zan denei errietan, maisu ziran herrietan, ni istillu gorrietan, gazte guztiak igesi joanda 'Jatetxe Arrietan'.

9.- Apaizak ondoan laiste, "gogor ari zera gazte", nik erantzuna: "Jaunak nai al du egoterik triste?", ez zuala ala uste, azkenen bat eta beste, "dantza librean plazan argitan diberti zaitezte".

10.- Apaiza juan zan ostea da Don Balentin bestea, eta gazteak poz aundiakin aurrera festa, zer izaten dan gaztea, gerekian gendun ospea, gauzik zallena gerta zitzaigun berriro astea.

11.- Ezin dantzatu eldua, begira jende eldua, apaizak ere ez ikusi nai gaztedi galdua, erri guztia bildua, zarrak ezin isildua, kanpoko oitura etzegoen gaur bezin ugaldia.

12.- Egurak sartu garreta, antxe gaztañak erreta, lan ortarako batzuek artu baitzuten arreta, oituak lege zarreta, bueltak emanez karreta, danboliñari jirak eskubi eta ezkerreta.

13.- Gaztain tartan tirua an jarri gendun girua, naiz eta denek gutxi izandu patrikan dirua, bi izatetik irua altxatzen genun burua, alaitasunez ezin berdindu gure ingurua.

14.- Gaztain erriak maiean Santu Guztien Jaiean, lenengo dantza egin ondoren era alaeian, ez goibel da isilleian, lagun denak urbilleian, festa aundia gozatzen genun geure umilleian.

15.- Denak zabaldu maiara da guztiontzat naiara, Olaberrian ospatu oi zan olako jaiara, janda dantzatu bi era, arrebatik anaiera, guztiak pozik eta kontentu festan amaiera.

16.- Denok ilunabarrean, neskai lagundu bearrean, kontu potxolok eta eskua bere bizkarrean, eta pauso bizkorrean alkar lagunduz urrean, musu txiki bat etxe ondoko sasi baztarrean.


17.- Zortzirak arte alkarte, agur datorren jai arte, bidean garbi ibiltzekore, bear zan ainbat arte, loitatik ezin aparte, ateri bazan suerte, garai bateko kontutxoakin enterau zerate.



1944. urteko Komunio Haundia Ataungo Aian

Ataungo Aiako gaztetxoek 1944. urte inguruan Komunio Handia egin zuteneko argazkia da honakoa. Apaiza Don Inazio Azurmendi zen eta irakaslea, Irene. Gainerakoak ezagutzen baduzue lana!

Zure etorkizuna EUSKARAZ



ESKAITZA

EUSKALDUNTZE eta
ALFABETATZE maila guztiak, EGA.
Ikasketa bereziak eskariei egokituak.
Ordutegi zabala.
Beka sistema daukagu.
Berri gehiago, Udal Euskaltegian.

BULEGO ORDUTEGIA

Goizez: 09:00-13:00
Arratsaldez: 15:00-19:00.

MATRIKULATZEKO EPEA

Urtarrilaren 17tik 28ra
16 urtetik gorakoentzat.

BEASAINGO UDAL EUSKALTEGIA

Loinazko San Martin plaza, Kultur Etxea, 1.a • 20200 BEASAIN
Tel.: 943 028 100 • Posta elektronikoa: udaleusk_beasain@jalgi.com

URBITARTE TOLARE SAGARDOTEGIA



**IREKI DUGU
TXOTX
DENBORALDIA**

*Eguerdi eta gauetan
irekita*

*Eguerdietan hobe
aurrez deitzea*



*Zatoz lagunarteko
giroaz gozatzera!*

*Zatoz Urbitarte
sagardotegira!*

GIZALDI BUKAERA?
MILURTEKOAREN
HASIERA?

2000 EFEKTUA?

EURO €?

ZER AXOLA!

GU
HEMEN

TINKO

ZU
KIROLEAN
LAGUNDUZ

ANTZIZAR
KIROLDEGIA

2000

KIROLAREN UDAL ERAKUNDEA
instituto municipal del deporte

EASAIN

ANTZIZAR
KIROLDEGIA



BEASAINGO UDALA

KIROLAREN UDAL ERAKUNDEA
instituto municipal del deporte
EASAIN